

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

240. Zenb.


1994.eko iraila
315 pta./14 libera
(B.E.Z. borte)

CAFÉ DO
BRASIL

**Txetxu Baque: "Bilboko erdialdean
edaten da kaferik onena"**



ARANTXA MARISKAL



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

2 Euskal Herriko Bertsolarien Elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentruan lan egiten du Arantxa Mariskalek. Arantxak Edurne Oiarbide du **lankide** Kutzak **lagatako** egoitzaren bi **solairu** betexeetan.

Prentsa-dosierrak dituzte bilduta **sailkatzeko**, argazki eta **doinu-saldoa**, bertsolariek egiten dituzten bertsoak —**zuzeneko emanaldien** %30a zintatan hiru lagunek jasoa— eta literaturazko bestelako lanak, abeslariarekin batera kantatzen dituzten bertsoak, bideoak, bi mila liburutik gora, aldizkariak, herri-aldizkariak, eskeletan azaltzen diren bertsoak, bertso-saioei buruz egunkarietan idazten diren azalpen eta iritziak, trikiti moduan emandako bertsoak, bertso-jaialdietako iragarkiak, esku-programak, sarrerak... Zer ez? **Atzeritik** ere **igortzen** dute informazioa. Izan ere, **ahozko** jarduna ez da bakarrik Euskal Herrian ematen, eta ahozkotasunaren teorizazioa artxibatzen ari dira Xenpelarren. Eta etxe partikularretako **ondarea** ere jaso nahi dute: «Ahozko eta idatzizko informazio asko dago etxeetan, aiton-amonen bertsoak, bertso-paperak eta... Baina horri jendeak ez dio garrantzirik ematen, eta galtzeko arriskuan daude» esan digu Arantxa Mariskalek.

Hala ere, **lehentasuna** gaur egungo **ekoizpenak** omen du: «Ez dugu atzera gehiegi begiratzen, ez nahi ez dugulako, ezin garelako iritsi baizik. **Aurrekontuak** dira, aurten 10.000.000 pezetakoa, arazorik **nagusiena**. Hortik aterata soldatak, argia... Eta datorren urtean ez dakigu aurrekontua zein izango den. Guztia lortzeko **baliabide** askorik ez dugu. Baina, hala ere, hemen informazio asko dago, eta konturatu gara, norbait laguntza eske etortzen bada, laguntza hori eskaintzen dugula. Merezi du gure lanak» adierazi digu Arantxak.

LANKIDE.- Laneko laguna.
Compañero/a de trabajo.
LAGA.- Utzi. Dejar.
EGOITZA.- Sede.
SOLAIRU.- Piso.
BETEXE.- Bete samarra. Bastante lleno.
SAILKATU.- Clasificar.
DOINU-SALDO.- Doinu-sorta edo bilduma.

ZUZENKO EMANALDI.- Zuzeneko saioa. Actuación en directo.
ATZERRI.- Extranjero.
IGORRI.- Bidali. Enviar.
AHOZKO.- Oral.
ONDARE.- Gordailua. Patrimonio.
LEHENTASUN.- Preferencia.
EKOIZPEN.- Producción.
AURREKONTU.- Presupuesto.
NAGUSI.- Principal.
BALIABIDE.- Medio, recurso.

IKUSMIRAN
ERREPORTAIA
ELKARRIZKETA

ERREPORTAIA
LABURRAK 2
ERREPORTAIA
BAI,ESAN 2 3
ELKARRIZKETA
PORRUSALDA 1 2
ERREPORTAIA
HAU MUNDUA 2
ERREPORTAIA
LIBURUAK 2
ZOKOMIRAN
ERREPORTAIA
EZETZ ASMATU 2
ABESTIA
ERREPORTAIA
IPUINA
JOLASEAN
ZINEA

KOMIKIA
SOLUZIOAK
HOROSKOPOA 2

Arantxa Mariskal	2
Natura berekoia?	4,5
Txetxu Baque: «Bilboko erdialdean edaten da kaferik onena»	6,7,8,9
Butano-banatzailleak, azken zamariak	10,11
Beti aitzakia bila	12
Teodoro Ganzarain: «Psoriasis ez da kutsakorra»	13
Eguzki xuriaren ingurumarian	14,15
Janari berriak gure mahaian	16,17
Fernando Telletxea: «Zoritxarrez, artista jaio nintzen»	18
Metadona, heroina baino egokiagoa	19,20,21
Izokin euskaldun baten istorioa	22
Ezkerrak azkar hiltzen	23
Testamentua (Rufino Iraola)	24
Krzysztof Kieslowski, Poloniatik Donostiaratu zen laguna (Begoña del Teso)	25,26,27
Afaria (Fernando Torrecilla)	28,29
	30,31
	32
	33,34,35
	36,37
	38,39
	40,41
	42,43,44,45
	46
	47

HABE MAILAKA IRAKURRI

Irakurle hori:

Dagoeneko badakizu aldizkari honetako erreportaiek eta zenbaki bat dutela artikuluen zailtasuna adierazteko. Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4 zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.



© Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra: HABE.
Tel. (943) 42 91 20
Faxa: (943) 43 01 62
ERREDAKZIOA:
Iñaki Ugalde
Asis Eizmendi
Ion Imanol Iturrioz
MARRAZKIGILEA: Enrike Larrañe
AZALEKO ARGAZKIA:
Xabier Elgezabal

IRARKOLA:
Artes Gráficas
Rontegui S.A.L.
LEGEZKO GORDAILUA:
BI-2251/81
ISSN: 0212-6788

NATURA BEREKOIA?

3 Animalioek ohitura bitxiak ditugula diote gizakiek: odoltzaleak garela, lapurretak egiteari **zaletasun** gehiegi diogula eta beste hainbeste ideia oker. Baina ez da haiek uste bezain sinplea, eta gu, animalioek, zenbait puntu argitzen saiatuko gara hemen.

Has gaitezen oso gorrotatua den **azeriaz** mintzatzen. Hiltzaile eta odoltzale gaiztoa zarela diote, ba al duzu horri erantzuterik?


AZERIA: «Beno... mendian ehizean ibiltzea gauza **nekeza** denez, herrietako **kortetara** hurbiltzen gara. Barruan sartzerik lortuz gero, ahal dugun guztia harrapatzen saiatuko gara aurrerantzean elikagai-arazorik **izan ez dezagun**; baina, gizakia **ohartzen** bada, **hanka egin** beharrean gaude **atzeman ez gaitzaten**... pena handia ematen digu **akabatutako** piezak bertan utzi beharrak».

Txoriek, ordeak, ez dute hain izen txarririk. Aipa ditzagun gizonak **lagatako jaki-hondakinak** jaten dituzten **hegaztiak**. Gizakien ordoduetara ohitzen dira eta

hauek bukatutakoan, apurrak garbitzen dituzte.

Lapur ospetsua da **antxeta**. Chicagoko gaizkileen modura adi-adi dago **hegaberen** mugimenduei **so**. Hegaberek iaotasun berezia dute **zizareak** harrapatzeko eta, hau jakinik, antxeta bakoitzak 300 bat lagunekin osaturiko hegabera-faldek zaintzen ditu eta noizean behin zerga gisa zizareren bat edo beste **osten** die (eguneroko harrapakina 150 zizarekoa izan daiteke).


Bada **iruzurraz** bizi denik ere, esate baterako EEBetako hego-



-ekialdeko ur **geldoetan** bizi den **dortoka**, zizare antzeko **mihi** izugarria duena. Mihia zizarea bezala mugituz, arrain **inozoak** erakarri eta ahoa bat-batean ixten du eta akabo arrain gaisoa.

Azpijokoan trebezia handia du marra-urdindun **kabuxiak** ere; bera baino handiagoa bazara ere ez zaitez fida. Itxuraz **otzana** da, baina izatez hiltzaile gaiztoa. Korak inguruetan paseatzeko asmoa baduzu, ez zaitez harengana hurbildu horzkada galanta egitea nahi ez baduzu.

Ez pentsa **tximitxa** atzean geratzen denik, hau ere tranposo abila da eta. Ez ahal da hala?



ZALETASUN.- Afizioa.

AZERI.- Zorro.

NEKEZ.- Neketsua, nekagarria. Costoso.

KORTA.- Ikulua. Cuadra, establo.

IZAN EZ DEZAGUN.- Ez izateko.

Para que no tengamos.

OHARTU.- Konturatu, sumatu. Advertir.

HANKA EGIN.- Ihes egin. Huir.

ATZEMAN EZ GAITZATEN.- Gu ez

harrapatzeko. Para que no nos cojan.

AKABATU.- Hil.

LAGA.- Utzi.

JAKI-HONDAKIN.- Resto de alimentos.

HEGAZTI.- Ave.

ANTXETA.- Kaiola. Gaviota.

HEGABERA.- Avefría.

SO.- Begira.

ZIZARE.- Lombriz.

OSTU.- Lapurtu, ebatsi. Robar.

IRUZUR.- Amarrua. Trampa.

GELDO.- Motela. Lento, manso.

DORTOKA.- Tortuga.

MIHI.- Mingaina. Lengua.

INOZO.- Inuxentea. Ingenuo.

KABUXIA.- Arrain-mota bat.

Babosa.

OTZAN.- Eztia, lasaia. Apacible.

TXIMITXA.- Chinche.


TXIMITXA: Bai, ni **arestian** aipatu dortokaren miresle sutsua naiz. Neuk ere mimetismoari esker termita gozoak jaten ditut. Termitak beren gordelekutik atera daitezten, aurretik harrapatu dudak baten **gorpua** sarreraren aurrean **astinduko** dut; hauek beren kide hilaren bila irtengo dira eta... ñam, ñam nire bazkariari jarraipen emateko aukera izango dut.

Segadak ipintzen gaindiezina Bruneiko landare jaurtitzaila da zalantzarik gabe. Hau ez da txantxetan ibiltzen, bera da tranpa. Barrukaldeko hormak txit **labainkorrak** ditu eta, bertaraino ausartzen diren intsektu burugabeak beraien heriotza izango den zukuraino **linburtuko** dira. Askotan, landareak berak behar dituen baino askoz ere gehiago eror daitezke **lika** berezi horretara, baina ez larritu; bada salda horretan lasai-lasai dabilen **armiarma** bat, eta bertan lortzen du aseko duen janaria.

Burduntziak uste baino bizidun gaiztoagoak dira. Hortik zehar maitale bila noraezean dabiltzan **ar** bakartiek, estalketaren unean dagoen bikotea banatzeko saioak egiten dituzte.

Beste gauza bat ikusi nuen behin aintzira batean askoz ere desatseginagoa. **Ahate** arrak emeak baino ugariagoak dira, honaino arazorik ez. Estalketaren unean, ordea, arrak «Malloak» diskotekan **baileuden** jokatzten dute; emea ikusi orduko taldeka inguratzen dira harengana **txortan egiteko** asmoz. Emeak **muzin egingo** balie, bortxatu egingo lukete asko pentsatu gabe. Halaxe ikusi nuen nik egun lazgarri hartan ... benetan nazkagarria.

Kilkir emeak ez dira hain ahulak, arren zoritxarreko. Emeak arren bat begiz jota badauka, harengan hurbildu eta gainean jarriko zaio. Estalketa bukatutakoan **arrarenak egin du**. Ez da alferrik galduko, ordea, haren gorpua. Euli parasituzaleak bere larbak ipiniko ditu hauen gozamenerako.



EEBBetako **paduretan** aspaldiko lehia dute **txepetxak** eta bera baino nabarmenki handiagoa den **birigarroak**. Biek dute intsektu-eskasiaren arazoa; eta txepetx ahulak birigarroaren aurrean zereginik ez duenez, konpetentzia gutxitzen saiatuko da guztiz **maltzurki** jokatzuz. Birigarroak **habian** arrautzak bakarrik uzten dituenen, txepetxak bere moko luzeaz zulatu egingo ditu eta antzutu. Lehiakide gutxiago, beraz.

Barraskiloen arteko konpetentzia, berriz, anaiartekoa da. Kain eta Abel, Feliziano eta Trinido, eta beste zenbaitzuren antzera, arrautzetatik ateratzen diren lehenengoak beren arrautz-**oskola** jango dute lehendabizi, eta gero jaiotzeko dauden anai-arrebak **irentsiko** dituzte.

Hainbeste bortxaketa, erahilketa eta indarkeriaren

aurrean, ordea, (momentu batez telebista aurreko zapping-ean murgilduta nengoela pentsatu dut) badago jarraitzeko moduko maitasun-adierazpenik ere (ez dezatela gero gizakiek esan animalion artean jende jatorrik ez dagoenik!). Horren eredurik handiena tximini saredun armiarma da. Armiarma gaiztoaren mitoak bertan behera botako dituen biziduna hau. Udan bere kumeak **elikatzten** eta babesten dihardu (4 bat hilabetez); garai honetan elikagaiak ugari dira, aitzitik, udazkenean ez. Armiarma amak ez du inoiz inolako zalantzarik izango: bere kumeak hiltzen utzi aurretik nahiago du bere buruaz beste egin kumeak salba daitezten.

Imanol Sorondo
Udal Euskaltegiko ikaslea
Hernani



ARESTIAN.- Lehenxeago. Un poquito antes.

GORPU.- Hilotza. Cadáver.

ASTINDU.- Harrotu. Sacudir.

SEGADA.- Trampa.

LABAINKOR.- Irristakorra. Resbaladizo.

LINBURTU.- Irristatu. Resbalar.

LIKA.- Materia viscosa.

ARMIAARMA.- Araña.

BURDUNTZI.- Libélula.

AR.- Macho.

AHATE.- Pato.

BAILEUDEN.- Egongo balira bezala. Como si estuvieran.

TXORTAN EGIN.- Realizar la cópula sexual.

MUZIN EGIN.- Uko egin, arbuiatu. Rechazar.

KILKIR.- Grillo.

ARRARENAK EGIN DU.- Arra hil egiten da, akabo arra.

PADURA.- Marisma.

TXEPETX.- Reyezuelo.

BIRIGARRO.- Malviz.

MALTZURKI.- Amarruz. Con malicia, astutamente.

HABIA.- Nido.

BARRASKILO.- Caracol.

OSKOL.- Cáscara.

IRENTSI.- Devorar.

ELIKATU.- Bazkatu, jaten eman. Alimentar.

Ostalaritza-alorreko datu batzuen arabera

TXETXU BAQUE: «Bilboko erdialdean edaten da kaferik onena»

3 Beharbada askok ez duzue ezagutuko Jose Luis Baque, edo Txetxu Baque, baina horren **deitura** hainbat eta hainbat tokitan azaltzen da iragarkitan: pilotalekutan, zezenplazatan, txirrindularitzan, saskibaloizaleen begibistan, autobusetan, euskararen aldeko ekitaldietan, e.a. Erdal abestiak dioen **legez**, abizen horrek iragartzen duena hauxe da, «una cosa que yo sólo sé: café». Bai. Kafearen usain eta zaporeari **atxikia** dago Txetxu Baque, 1992an New Yorkeko Tea Coffee Trade Journal aldizkariak izendatutako «coffe man of the year» (aurtengo kafe-gizona). Gu berarekin egon ginen hizketan, Cafés Baqueren iragarkien alorreko arduradunak, Alberto Vidalek, eta Txetxu Baquek berak Durangoko lantegi berritua —kafea hartu eta gero, jakina— erakutsi ostean. Hantxe zeuden, adibidez, aurtengo «Nafarroa Oinez»i buruzko azukre-zorrotxoak.

HABE.- Kafea garestitu egingo omen da, asko gainera.

TXETXU BAQUE.- Bai. Brasilek, munduko lehen **ekoizleak**, **izozte** ikaragarriak **pairatu** ditu, bi izozte, **uztaren** %30a galdu du gutxi-asko. Azken urteotan kafeak merketik egin du oso, ez baitzioten ia **ongarririk** botatzen, ez fertilizanterik... Izozteen ondorioz, eskaintza **urria** da eskaeraren **aldean** eta salneurriak gora egingo du. Sekula ez dago esaterik, baina ofertan saltzen bada, ez dut uste kilo-laurdenak 250 pezeta baino merkeago egingo duenik. Eta ofertatik kanpo, 300 pezeta inguru. Baina orain dela sei urte kafeak ofertan 135 pezeta egiten zuen eta aurten 113. Garestitze honekin, orain dela sei hilabete **halako bi** egingo du salneurrian, baina

orain zortzi urte bezala. Beraz, ez dugu uste kontsumoak beherakada handirik egingo duenik.

H.- Eta ezin al zaie izozteei **aurre egin**?

T. B.- Nahikoa da -4°C izatea kafe-arbola **zapuzteko**. Hala ere, toki beroagoetara eraman dituzte landareak. Baina neurri batean, mesede egin die izozteak kafegileei, salneurriak igotzean diru gehiago irabaziko dute eta, normalean baino hiru-lau aldiz garestiago salduz.

H.- EL PAIS egunkariak dio ekoizleak ez duela diru gehiago irabaziko, baizik burtsan lan egiten dutenei egingo diela on igoera honek.

T. B.- Bai. Ekoizleari ere on egingo dio. Orain dolar baten 80 zentabo ordaintzen bazaizkio brasildar bati, igoera honekin dolar t'erdia ordainduko diote.

Eskuak eta informatika

H.- Kafea **alez** ale jasotzen da, ezta?

T. B.- Ez beti. Kolonbian, esaterako, alez ale jasotzen dute, **helduak** dauden aleak bakarrik, gorriak. Brasilen ez, dena hartzen dute, ale gorriak eta berdeak batera, lore eta guzti. Jakina Brasilen jasota biltzea merkeagoa da... Kolonbiak «Federación de Cafeteros de Colombia»ren bidez oso maila ona lortu du kafegintzan, urtetik urtera zaporean gorabehera handirik gabeko kafea eginez. Costa

DEITURA.- Abizena. Apellido.

LEGEZ.- Bezala, eran.

ATXIKI.- Lotua.

EKOIZLE.- Ekoiz(tu)+le. Productor/a. -LE atzizkiak egilea adierazten du. Adibidez: erosle, idazle, ikusle...

IZOZTE.- Jelatea. Helada.

PAIRATU.- Jasan, nozitu. Sufrir.

UZTA.- Cosecha.

ONGARRI.- Abono.

URRI.- Murritza. Escaso.

ALDEAN.- Ondoa. En

comparación de

HALAKO BI.- Doble.

AURRE EGIN.- Hacer frente.

ZAPUZTU.- Ihartu. Marchitar, quedar sin vida.

ALE.- Bikorra, garaua. Grano.

HELDU.- Zoritua, ondua, umotua. Maduro.

Rican bada kafe hoberik, baina gutxi ekoizten dute Kolonbiaren aldean.

H.- Baina teknologia ere izugarri dago kafearen alor honetan?

T. B.- Guk ia dena daukagu teknifikatua, informatizatua. Tresna berriak erosteko milioi-mordoa sartu dugu eta inolako krediturik eskatu gabe. Baina, hala ere, langileak hartzen ari gara. Zergatik? Kafe gehiago eta hobea lortzen dugu tresna berrien bidez; beraz, **saltzaile** gehiago behar ditugu.

Bilboko kafea


H.- Nondik ekartzen duzue kafea?

T. B.- Guk kafe suabea **gura dugunez**, batez ere Ertamerika eta Hegoamerikatik: Nikaragua, Kolonbia, Costa Rica, Brasil... Horietatik **endemas**. Eta egunen batean, Asiak bere kafea hobetzen badu, Txinak esaterako, handik ere ekarriko dugu. Asian **tona** asko ekoizten dituzte, Txinan, Vietnamen, Indonesian. Baina bertarako da gehienbat. Asiak min handia egin diezaioke gerora Amerikari. Garai batean kautxuarekin gertatu zen legez gerta liteke kafearekin ere. Oraingoan, Brasil eta Kolonbia dira gure saltzaile nagusiak. Dena den, esan behar da kafe-mota asko dagoela. Brasilek berak kafetan **aukera** zabalagoa du Frantziak ardota eta gaztatan baino.

Gurean, etxean beste kafe hartzen da etxetik kanpo

H.- Gurean ba al dakigu zerbait kafeaz?

T. B.- Ardoaz gehiago. Euskaditik kanpo baino gehiago dakigu kafeaz, baina, hala ere, gutxi. «Ni oso kafezalea naiz» dio askok, eta kafe beltza dute atsegin: **mikatz**, **lodixea**... baina



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

kafe-kontuan **jakituna** guk baino gehiago edaten duena izango da **ziurrenera**, eta horiek kafe suabea dute atsegin, ez hain pisua eta **usaintsua** oso, Danimarkak eta. Izan ere, Danimarkan eta Europako Iparraldean presiozko kafe-makinarik ez dago ia, **iragazkidunak** baizik. Kafe-katilukada bat osatzeko kafe gehiago behar dute. Munduko kaferik garestienak 8-9 mila

pezeta egiten du kiloak (ale berdean) eta oso suabea da... Guk kafea zapoarearen arabera ekartzen dugu. 1980a arte kafea Espainiaren kontua zen, estatuarena, ordura arte yodoaren zaporea duen kafea ekartzen zuten hona, «Café para España» deitzen zioten, eta ez zegoen eskatutako kafea ekartzen zuten ziurtatzeko katadorerik hemen. Orain bai. Badago. Ez da erraza katilukada

SALTZAILE.- Sal(du)+tzaile. Vendedor/a. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: biltzaile, laguntzaile, galtzaile...
GURA IZAN.- Nahi izan. Querere.
ENDEMAS.- Batez ere, gehienbat.
TONA.- Tonelada.
AUKERA.- Eskaintza. Oferta.


MIKATZ.- Mingotsa. Aurkakoa: gozoa.
LODIXE.- Lodi samarra. Un poco grueso.
JAKITUN.- Aditua. Experto/a.
ZIURRENERA.- Seguraski, seguruenik.
USAINTSU.- Usain+tsu. Oloroso. -TSU atzizkiak oparotasuna edo ugaritasuna adierazten du.

Adibidez: euritsu, urtetsu, malkartsu...
IRAGAZKIDUN.- Iragazki+dun. Iragazkia duena. Dotado de filtro. Era berean: dirudun, zaldun, harpidedun...

bat kafek, beste batekin **alderatuta**, zapore eta usain bera izatea. 1980az geroztik erosi dugun kafea hobea izan da, baina **bezeroari** ezin diozu aldaketa nabarmen bat ezarri, goizetik gauera ez behintzat. Kalitatea hobetu egin dugu, baina **pittinka-pittinka**, aldaketa bakoitza ia nabari ez dela. Bestalde, hemen asko erreparatzen diogu sukaldaritzari eta sukaldaritza-eskolakoak etorri eta etorri ari dira gure lantegira, eta ikastaroak ere ematen ditugu eskola horietan. Orain dela gutxi, Artxandako sukaldaritza-eskolan azterketak egin dizkiegu ikasleei nota eta guzti. Ez dakizu zenbat ikasi duten kafeaz, nolako

koktelak egiten dituzten. Ikasteko gogo! Ez dakizu zenbaterainokoa! Eta **etorkizunean** horiek arituko dira ostalaritzan, horietako batzuk enpresari izango dira. Gure eginkizuna ez da bakarrik kafea saltzea. Horregatik sartzen dugu horrenbeste diru kiroletan, eta, publizitaterik gabe jai duelako jenero honek. Eta horregatik sortu dugu «La Escuela del Café» azukre-zorrotxoetan. Eta horregatik ari gara etortzen zaizkigun eskolakumeak hartzeko gelak prestatzen lantegian.

H.- Jendeak beti kafe berbera edaten al du?



Brasilek kafetan Frantziak ardotan edo gaztatan baino aukera zabalagoa du.

T. B.- Gure datuen arabera, kafea erosten dutenen artean %20-22ak beti marka berbera aukeratzen du. Besteek ofertan dagoena erosten dute, eta oferta-klase asko dago. **Leialenak** kafe hutsa eta ebakia hartzen dutenak dira. Dena den, bezeroen gustua aldatu egin da. Lehen kafe-alea saltzen zen, eta guk ere erostekoan kafe-alearen tamainari erreparatzen genion; baina, orain, besteak beste kafe-zorroetatik haizea kentzeko teknika hobetu delako, etxeetara doan %80a edo lantegietan haustutakoa da; beraz, alearen tamainak baino areago zaporeak, usainak du garrantzia. Horregatik egiten ditugu **dastaketak** katilukadaz katilukada erosten dugun kafearen jatorrizko herrian. Gainera **aldeak** daude gustuan. Lehengo batean etxe batean txikoriarekin eman zidaten kafea. Ba hartu egingo dut hori ere. Kontua kafea edatea da: hutsik, **esnegainarekin**, azukrearekin...

Etxeetara doan kafearen %80a ehoa da

H.- Lehen Bilboko kafeaz hitz egin dugu.

T. B.- «Federación Española del Café»k ikerketatxo bat egiteko eskatu zuen. Ea ostalaritzan non edaten zen kaferik onena. Gurean hartzen da onena, Bizkaian hain zuzen, eta gehiago zehaztuz, Bilbon, erdialdean. Begira. Garai batean Sondikako aireportuko jatetxeak ez zuen izen onik, kafe-kontuan esan nahi dut. Hori **aldatze aldera**, Donostiako Ostalaritza Eskolakoekin hasi zituzten harremanak, eta hauek guri deitu, ea lagunduko genien. Eta guk baietz. Eta zer egin dugu? Kafe-menu bat jarri aireportuko jatetxean, eta **argibideak** zortzi hizkuntzatan daude: euskaraz, gaztelaraz, katalunieraz, galizieraz, ingelesez, frantsesez, italieraz eta alemanieraz. Donostiako Ostalaritza Eskolakoak aurtengo Munduko Futbol

ALDERATU.- Erkatu, konparatu.
BEZERO.- Parrokianoa. Cliente.
PITTINKA-PITTINKA.- Apurka-apurka, piskanaka. Poco a poco.

ETORKIZUN.- Geroa. Porvenir.

LEIAL.- Fidela. Fiel.
DASTAKETA.- Dasta(tu)+keta. Cata. -KETA atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Esate baterako: bilketa, garbiketa...
ALDE.- Diferentzia.
ESNEGAIN.- Nata.
ALDATZE ALDERA.- Aldatzeko. Para cambiar.
ARGIBIDE.- Informazioa.

Txapelketara joan zirenean, gure kafea eraman zuten eta hemengo azukre-zorrotxoak. Zorro horien bitartez, Getxoko Jazzaldia, Portugaleteko Nazioarteko Folklore eta horrelako emankizunak **babesten** zituen gure etxeak. Espainiako Txirrindularien Selekzioak gure kafea edaten du, eta azukre-zorrotxoetan Urkiolako igoeraren iragarkia dator.

Kafea garestitu egingo da, baina orain zortzi urteko salneurria izango du

H.- Euskal Herriko Iparraldean ere hasi zarete saltzen?

T. B.- Bai, baina jatetxeetara eta. Etxerako ez. Bezero onak dira. Kafe hobea egiten dugu alde honetan. Guk, orokorrean, kafea batez ere Bizkaian saltzen dugu. Ostean Gipuzkoan, gero Araban, Nafarroan, gero Cantabria aldean, eta asko, baina asko Burgosen. Hango jatetxerik onenetan gaude. Eta ostalaritzaz ari garela, zera esan nahi dut, emakumeek kafe asko edaten dutela, ia gizonezkoek adina. Hemen etxean adina kafe edaten da etxetik kanpo. Italian ere antzeko zerbaitek gertatzen da.


Kafea eta FARMAPRIMA

H.- Eta zer da FARMAPRIMA?

T. B.- Zergatik galdetzen didazu hori?

H.- Artikulu batek FARMAPRIMAKo **partaide** zarela aitatzen du.

T. B.- Espainian bada SEDA izeneko enpresa bat, Sociedad Española de Alimentos eta guk hor egiten dugu geure kafe **urtugarria**, eta Eroskiko, Prycako «Produktu Zuriek» kafe-mota hau erabiltzen dute asko. Izan ere, Cafés Baque ez da hori bakarrik.



Baquek diru asko eman dio kirolari.

Merkatuaren liberalizazioa iritsi zenean, multinazionalekin hasi ginen **lehian**, eta horretarako beste batzuekin elkartu behar izan genuen, Comercial de Materias Primas sortu zen, eta hamar urtez horko lehendakari izan naiz, 1992a arte. Horrez gain, FARMAPRIMAn kafeari kafeina kentzen zaio, kafea kafeinarik gabeko egiten da. Eta kafeina aparte saldu. Alde batetik, botikak egiteko, eta bestetik edari freskagarritarako: Coca-Cola, Pepsi-Cola... Eta horixe da FARMAPRIMA, horko lehendakari-ordea naiz, baita SEDArene ere. Eta Unión Tostadoraren lehendakari eta Asociación Española de Torrefactores de Cafen ere bai... Eta, noski, 1992

urteko kafe-gizona izan behar, je, je, je...



BABESTU.- Proteger, patrocinar.
PARTAIDE.- Kidea, sozinoa.
URTUGARRI.- Soluble.
LEHI.- Competencia.

Egunean 4.000 kilo inguru bizkarrean

BUTANO-BANATZAILEAK, AZKEN ZAMARIAK

3 Hogeita sei kilo sorbaldan, beste hainbeste eskuineko eskuan, eskaileretan gora doa zamaria. Bigarren pisuan gelditu da piskatean arnasa hartzeko. **Izerdi patsetan** iritsi da gizona laugarrenera. Txirrina jo eta inor ageri ez. Behin eta berriz jo du ea esnatzen diren. Baina kale! Etxean ez dago inor. **Biraoka** jaitsi da gizona kamioira. **Biharamunean** berriz ere itzuli egin behar. Haren tripajatea, **alajainkoa!**

Gasa arina da, jenerorik arinenetako bat. Gasak, bonbonan presioan sartutakoan, ordea, karga hartzen du. Ontzi beteak 26 kilo pisatzen ditu, eta hutsak erdia. Bonbona **sorbaldan** hartu eta nork bere etxeraino igotzea ez da **samurra**, baina tira, egin behar denean egin egiten da eta kito. Gas-bonbonak **banatzea** ogibide **bihurtzen** denean, berriz, behin eta berriro errepikatu behar lan hori. Lehengo 26 kilo horiek 4.000 kilo bihurtzen dira egunaren **buruan**. Auzo berrietan ari direnek zorionez **igogailua** dute etxerik gehienetan; auzo zaharretako banatzaileak, ordea, bizkarka eraman behar.

Eskupekoekin gasoila erosi

Alberto goiz samar hasi da lanean. Goizeko zortzietan Donostiako gas-lantegian dago kamioia bete zain. Jose Ramon Mendizabal lantegiko enplegatuak minutu-erdi batean jaitsi ditu hogeita hamabost bonbona hutsak eta, horien lekuan, beteak sartu. Izerdi-tantarik ere ez du bota, **orgatila** mekanikoari esker. Alberto inbriatzen dago; berak kamioia husteko hiru bat ordu beharko ditu.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ZAMARI.- Cargador, bestia de carga.

IZERDI PATSETAN.- Izerditan blai. Sudando a mares.

BIRAOKA.- Blasfemando, echando palabrotas.

BIHARAMUN.- Hurrengo eguna. El día siguiente.

ALAJAINKOA!- ¡Vive Dios!

SORBALDA.- Bizkarra. Hombro,

espalda.

SAMUR.- Erraza. Aurkakoa: nekeza, zaila.

BANATU.- Partitu. Distribuir.

BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.

BURUAN.- Al cabo de.

IGOGAILU.- Igo+gailu. Igotzeko gailua edo tresna. Ascensor. Era berean: garbigailu, luzagailu, hozkailu...

ORGATILA.- Orga txikia. Carretilla.


Urte bete eskas darama lanean banatzaile gazteak. **Mehe** samarra da. Ez du inondik inora zamari-itxurarik: «Ez nuen besterik aurkitzen eta honi heldu nion. Nire emaztegiaren aita jubilatut egiten zela eta, lana utzi zidan. Ia 30 urtetan aritua da, Donostian 65 urte bete arte lan honetan aritutako lehenbizikoa. Eta primerako osasuna du». Lan egiteko auzo erraza duela esan behar, Amara Berrin etxerik gehienetan baitute igogailua.

Alberto kamioiaren jabe da. **Eskupekoekin** gasoila erosteko adina badu, baina askoz gehiago ez. Eskupekoak ez dira uste bezain **oparoak**: «Bataz beste hiru duro edo. Batek duro bat igotail, beste batek bost duro. Eta askok pezeta bat ere ez». Laugarren pisuraino oinez igo ondoren milakoa ematen ote dioten galdetu diogu —bonbonak 960 egiten du—, eta Albertok ezetz, **txanponak** itzuli behar izaten dizkiela.

Joxek lan **osagarria** du bonbonak banatzea. Hogeita zazpi urte daramatza langintza honetan, baina laster utzi beharko du, gerriko minez baitabil aspaldi honetan. Asto samarra ere bada izan ere. Binaka igotzen ditu bonbonak etxeetara: «Erdibidean arnasa piskat hartu eta segi gora». Hark aipatu digu hasierako pasadizoa, laugarren pisura igo eta etxean inor ez zegoeneko. Zorionez, gutfixtan gertatzen dira horrelakoak. Jendeak bonbona ate ondoan uzten du, eta dirua ontziaren azpian edo **aldamenekoaren** etxean. Beste batzuek, biek kanpoan lan egiten dutenean batez ere, kotxea hartu eta berak joaten dira bonbonaren bila. Hogeita hamar pezeta merkeagoa da, eta ez dute inoren zain egon beharrik.

Banaketa-zerbitzua kendu?...

Gizon bat kezkatu samar etorri da bonbonaren bila: «Egia al da banaketa-zerbitzua kendu egingo dutela? Etxeko batzuek gas



Lantegiko enplegatuak, berriz, minutu-erdian jaitsi ditu 35 bonbona hutsak.

naturala jarri behar genukeela diote». Jose Ramonek, enplegatuak, ezetz erantzun dio, gasaren instalatzaileek sortutako **zurumurrua** dela hori, lasai egoteko.

Eskupekoak bataz beste hiru durokoak

Zazpi banatzaile daude Donostiarako. Bakarka ibiltzen dira gehienetan, gaur egun ez baitago hainbesteko lanik. Jende askoren etxeetara iristen ari da gas naturala, gero eta gehiagotara. Beraz, ez dago Madril bezala jokatzeko beldurrik. Madril, **dirudienez**, zortziehun langileetatik lauhun bat **atzeritarrak** dira, laguntzaileak gehienak. Madril darrek ez dute **hitzarmenik** eta aseguruak gabe lan egin nahi; atzeritarrek, berriz, ez dute beste aukerarik. Lana beste inork nahi ez dituen baldintzetan egin behar.

Bederatziak aldera iritsi da Mikel, **bart** parrandan ibilia baita. *Honek badu butano-banatzaile itxura*, gure artean. **Sendoa** da: «**Beharko izan!** Nire auzoetan ez baitago ia igogailurik, hamarretik bitan gehienez ere». Loiolan

bonbona partitzen ibiltzeak badu bentajarik, hala ere. Auzo horretan lasai jotzen du kamioiaren **tutua** eta jendeak berehala ateratzen ditu bonbonak ate ondora. Hiribarruan, ordea, ez dago horrelakorik egiterik. Txirrina joka ibili behar nahitaez. Bestalde, udaltzainak **zelatan egoten** dira: «Ezin duzu kamioia bigarren ilaran utzi. Berehala datozkizu handik **uxatzera**. Baina hori partitzaile guztien borroka da». Kamioia ahal duen tokian utzi, eta orgatilan eramaten ditu gas-bonbonak atariraino. Denbora asko galdu behar, beraz, joan-etorrian.

Joxek binaka igotzen ditu bonbonak

Mikelek bost urte daramatza lanbide honetan. Besterik ez zeukalako heldu zion langintza honi. Anaia zebilen horretan, eta anaiaren aurretik osaba. Gauza bat aitortu digu, lana gogorra den arren, baduela **alde** onik, bakarra besterik ez bada ere: «Ez dira ordu asko izaten, sei edo zazpi ordu». **Eta gizasemeen beste topiko hori, butano-banatzaileek etxeoandreekin arrakasta handia dutela?** «Horrelakorik ez dut ezagutu nik» barrez Mikelek.

MEHE.- Argala, iharra. Aurkakoa: gizona.
ESKUPEKO.- Propina.
OPARO.- Joria, ugaria. Abundante.
TXANPON.- Sosa. Moneda.
OSAGARRI.- Osa(tu)+garri. Complementario. Era berean: negargarri, barregarri, ernegarri...
ALDAMEN.- Alboa, ondoa. Vecino/a.

BANAKETA.- Bana(tu)+keta. Distribución. -KETA atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Adibidez: azterketa, ikasketa, itaunketa...
ZURUMURRU.- Esamesa. Rumor.
DIRUDIENEZ.- Nonbait, antza denez. Al parecer.
ATZERITAR.- Extranjero/a.
HITZARMEN.- Contrato.

BART.- Anoche.
SENDO.- Indartsua. Aurkakoa: ahula, makala.
BEHARKO IZAN!- Zer erremedio! ¿Qué remedio!
TUTU.- Bocina.
ZELATAN EGON.- Vigilar, espiar
UXATU.- Aihenatu. Espantar.
ALDE.- Alderdia. Lado, aspecto.
GIZASEME.- Gizonezkoa. Varón.
ARRAKASTA.- Exitu.


INGELES AURRENA EZ

2 Ingelesa da gaur egun **nazioarteko** hizkuntza. Baina ez da hizkuntzarik **erabili**ena. Zenbatek hitz egiten du ingelesez munduan? 456 milioi **lagunek**, mandarin-**hiztunen** erdiak. 907 milioi lagunek dakite Txinako hizkuntza hori. Hindiera dator ingelesaren atzetik —383 milioi hitzun— eta ondoren espainiera —362 milioi hitzun—.



KOTXEZALEEK UMEAK HELDUAK DIRELA USTE

2 Ume asko **harrapatzen** dituzte kotxeek. Batzuetan umearen **errua** izaten da, **bat-batean** kaminora irten delako. Baina kotxezaleek ere izaten dute zerikusirik **istripuekin**. Gidariak aurrean **baten bat** ikusten du. Lehen begi-kolpean pertona **heldu** bat dela uste du, eta urruti samar dagoela. Baina ez. Umea da. Horregatik ikusten du txikia, ez urruti dagoelako. Eta kotxea gelditzeko **astirik** ez!



UME HORI EZ DA NIREA!

2 Basektomia egin diote senarrari. Beraz, espermatozoideak ezin dira kanpora **iritsi**. **Halako batean**, ordea, emaztea **haurdun** dago. Gizona **sutan**: «Zeinek ibili zara ba?». Andreak ezetz, ez duela beste gizonik **ezagutu**. **Ezkontideen** artean **liskar** handiak izan dira. Jaio da umea eta azterketa genetikoak egin dituzte. Umea gizonarena da. Basektomiak **huts** egin dio. Oso gutxitan gertatzen da hori. Bi mila **ebakuntzatik** batek egiten du kale. Hori dio behintzat Joseph Smith urologo britainiarrak.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

BEHIKIAREN KALITATEKO LABELA LASTER HARATEGIETAN

2 Ekainean aurkeztu zen euskal labela. Baina udazkenara arte ez dugu harategietan ikusiko. Hiru motatako behikia salduko da agiri horrekin: **txahala**, **zaharra** eta **idia**. Hasieran, **txahala** eta **zaharra** salduko dira batez ere; **idia** agian geroago iritsiko da harategietara. Dena den, **idia** izeneko gehienetan ez da idi-haragia izango. Ez harritu! Galizako idi-haragia jaten duzunean zer uste duzue jaten duzuela, idia? **Bai zera!** Galizan ez dute hainbeste zezen **irentzen**. Ia beti behi-haragia jaten duzue. Labelak **arautu** egin du gai hori. **Iai** izenekoaren barruan idi-haragia eta 2 urtetik 4 urtera bitarteko behiarena sartzen dira.

NAZIOARTEKO.- Internacional.
ERABILI.- Utilizado.
LAGUN.- Pertsona.
HIZTUN.- Hablante.
IRITSI.- Heldu, ailegatu. Llegar.
HALAKO BATEAN.- De repente.
HAURDUN.- Embarazada.
SUTAN.- Oso haserre. Enfurecido.
EZAGUTU.- Conocer, tener relaciones.

EZKONTIDE.- Cónyuge.
LISKAR.- Sesioa, borroka.
HUTS EGIN.- Kale egin. Fallar.
EBAKUNTZA.- Operación quirúrgica.
HARRAPATU.- Coger, atropellar.
ERRU.- Kulpa.
BAT-BATEAN.- De repente.
ISTRIPU.- Accidente.
BATEN BAT.- Norbait. Alguien.

HELDU.- Adulto/a.
ASTI.- Beta, denbora.
BEHIKI.- Carne de vacuno.
LASTER.- Aurki. Dentro de poco.
HARATEGI.- Carnicería.
TXAHAL.- Txekorra. Ternera/o.
IDI.- Buey.
BAI ZERA!- Ezta pentsatu ere! ¡Qué va!
IRENDU.- Zikiratu. Castrar.
ARAUTU.- Reglamentar.

BETI AITZAKIA BILA

3 Kotxearekin **istripua** izan dugu. Aseguru-etxera joaten gara zer gertatu den esatera. Eta, geure burua **zuritzeko**, astakeria **galantak** esan ere bai, ez buru ez hanka dutenak. Hona hemen, **bilduma** txiki bat.

«Inolako abisurik gabe, beste kotxeak nirea jo zuen».

«**Leihatilako** kristala jaitsita zegoela uste nuen, baina buruarekin **alderik alde** pasa nuenean konturatu nintzen itxia zegoela»

«Aparkatuta zegoen kontrako bidetik zetorren kamioi baten kontra joan nintzen».

«**Oinezkoak** nire kotxearekin egin zuen topo eta gero azpian sartu zen».

«Kamioi batek nire aurreko kristalean **barrena** atzera egin zuen, eta nire emaztea aurpegian jo zuen».

«Automobila arzenetik atera nuen, **amaginarrebari** begiratu, eta **lur-emendatik** joan nintzen buruz behera».

«Euli bat **akatu** nahi nuen eta telefono-postea jo nuen».

«Egun osoa landareak erosten eman nuen, eta etxerakoan, bidegurutzera iristean, **tupustean sasi** bat irten zen, begien aurrean jarri zitzaidan eta ezin izan nuen zetorkidan kotxea ikusi».

«Berrogei urte neramatzan gidari, eta bolantean lo hartu eta istripua izan nuen».

«Aurreko kotxearen **kolpeleungailua** ez jotze aldera, oinezkoa harrapatu nuen».

«Nire automobila ondo aparkatuta zegoen, baina bat-batean atzeraka egin eta beste kotxea jo zuen».

«Ezerezetik irtendako kotxe **ikustezin** batek jo ninduen, eta gero desagertu egin zen».


«Zauririk ez nuela esan nion poliziari, baina, **kapela** erantzi nuenean, **kaskezurrean pitzatua** nuela konturatu nintzen».

«**Aguretxoa** harrapatu nuenean, **ziurtzat jo nuen** ez zela inoiz kaminoaren bestaldera iritsiko».

«Oinezkoak ez zekien norantz joan **lasterka**; beraz, gainetik pasa nintzaion».

«Istripuaren **zeharreko arrazoia** automobil txiki batean zihoan gizonito bat izan zen, oso aho handia zuena».

«Telefono-postea gero eta hurbilago neukan, eta hura nola **saihestu** nenbilela, **aurrez aurre jo** nuen».



ISTRIPU.- Accidente.

ZURITU.- Justificar.

GALANT.- Handia, gaitza. Enorme.

BILDUMA.- Sorta. Colección.

LEIHATILA.- Ventanilla.

ALDERIK ALDE.- De parte a parte.

OINEZKO.- Peatón.

BARRENA.- Zehar. A través de.

AMAGINARREBA.- Suegra.

LUR-EMENDA.- Terraplén.

AKATU.- Hil. Matar.

TUPUSTEAN.- Bat-batean. De repente.

SASI.- Zarza.

KOLPELEUNGAILU.- Parachoques.

EZ JOTZE ALDERA.- Ez jotzeko. Para no pegar, a cambio de no pegar.

IKUSTEZIN.- Invisible.

KAPELA.- Sombrero.

KASKEZUR.- Cráneo.

PITZATU.- Zarfatu, printzatu. Rajar.

AGURETXO.- Gizontxo zaharra.

ZIURTZAT JO NUEN.- Ziur nengoen. Dí como seguro.

LASTERKA.- Korrika. Corriendo.

ZEHARREKO ARRAZOI.- Causa indirecta.

SAIHESTU.- Evitar.

AURREZ AURRE.- De frente.

HARPIDETZA-ORRIA

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

HABE aldizkaria
Foruen Pasealekua, 1 - 1
20005 DONOSTIA

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.800 pezeta).

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa

H/Sukurtsala:

Zenbakia:

BAI, ESAN

ZER ARGITARATU DA ZUTABEN ?

2 ZUTABEren bigarren monografia **tresna** egokia da aldizkaria bera ezagutzeko. Lan honetan, lehen hogeita hamar aleen, hamar urteko lanen, **aurkibidea** dago txukun eta zehatz **eratu**a. Hamasei ataleko aurkibidea da, ia ehun orritakoa: egileak, liburu-**aipamenak**, artikulua-**aipamenak**, **aipamengileak**, HABE argitalpenak, bisitak, Euskararen aldeko kanpainak/**egitasmok**, ikasbideak telebistan, ikastaro, ihardunaldi, kongresu eta erakusketak... Aurkibide honen bidez aldizkari zaharrei **etekin** handiagoa aterako diezu.


Baina, jakina, ZUTABE aldizkariak aurrera **darrai**. Kalean da iadanik 34. zenbakia ere.



ETA BIDEOEN ONDOREN, IRAKASLE ETA IKASLEARENTZAKO LIBURUAK


3 Orain lau urte HABEk Euskal Administrazioako langileen euskara-gaitasuna **lantzeko** bi bideokasete kaleratu zituen, Gurtegikoak izenpean. Lehen hizkuntz eskakizunaren arabera eginak ziren bideokaseteok. **Ikusentzunezko baliabide** haien **oinarri** eta **jarraipen** dira **duela gutxi** argitaratutako bi liburu hauek: irakaslearena eta ikaslearena. Bideokaseteak bezala, administraziooko egoera eta **zereginetan** oinarrituta moldatu dira, lau hizkuntz **trebetasunak** lantzen laguntzeko.

Gurtegikoak Administrazioako langileei zuzendutako **langaiak** badira ere, ohiko euskalduntze eta alfabetatzerako ere probetxu handikoak izan litezke.



TRESNA.- Lanabesa. Utensilio.
AURKIBIDE.- Indice.
ERATU.- Moldatua, antolatua.
AIPAMEN.- Aipua. Mención.
EGITASMO.- Programa.
ETEKIN.- Mozkina, probetxua.
DARRAI.- Jarraitzen du, segitzen du.
LANDU.- Jorratu. Trabajar, cultivar.
IKUSENTZUNEZKO BALIABIDE.- Recurso audiovisual.

OINARRI.- Funtza. Base.
JARRAIPEN.- Continuación.
DUELA GUTXI.- Orain dela (denbora) gutxi. Hace poco tiempo.
ZEREGIN.- Lana, eginkizuna. Quehacer.
TREBETASUN.- Habilidad.
LANGAI.- Lanerako gaia. Material de trabajo.



MCDONALD'S-EKO MENUAK EUSKARAZ

2 Jende askok ez ditu jatetxe hauek begi onez ikusten. Kanpoko ohiturak ekartzen dituztela diote. Beste toki batzuetan Bacalao a la vizcaina menuan ikusita lasai daude, ordea. Menua gazteleraz idaztea ez da **nonbait** inperialismoa. Ba, Bilbondon dagoen McDonald's hanburgestegiakoak ez dira **iritzi berekoak**. Duela bi urte ireki zutenean, menuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zituzten. Uda honetan menuak braille idazkeran jarri dituzte **itsuentzat** eta hor ere ez zaie euskara ahaztu.

UNIBERTSITATEAN GEROZ ETA IKASLE GEHIAGO EUSKAL ADARRETAN

2 «Unibertsitateko ikasketak euskaraz? **Bai zera!** Nik erdaraz badaezbada ere». Hauxe euskaldun askoren pentsakera. Zorionez, joera hori **ahultzen** hasi da. 1992-1993 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle guztien %10'2ak euskarazko matrikula egin zuen. Ikasturte horretan bertan ikasle sartuberrien %17ak egin zuen euskarazko matrikula. **Dena den**, oraindik euskaldunen erdiek ere ez dute euskaraz ikasten unibertsitatean, %44'5ek hain zuzen. **Bada oraindik zertan hobetua.**



HUTSEGITEAK ZUZENTZEN

2 Joan den uztailleko aldizkarian, 239.ean alegia, Ina Williamsen elkarrizketan hutsegitea egin genuen **bitan**. Galestarrak Urrats euskaltegian izan zirela idatzi genuen sarreran eta **argazki-oin** batean. Eta ez zen hala izan. Donostiako HITZEZ euskaltegian egon ziren. Beraz, barkamena eskatu **beharrean** gaude.

NONBAIT.- Itxura denez, dirudienez. Al'parecer.
IRITZI BEREKO.- Del mismo parecer.
ITSU.- Ciego/a.
ADAR.- Rama.
BAI ZERA! - ¡Qué va!
AHULDU.- Makaldu. Debilitar.

DENA DEN.- Dena dela. De todas maneras.
BADA ORAINDIK ZERTAN
HOBETUA.- Ya hay todavía cosas en las que mejorar.
BITAN.- Bi aldiz edo bider.
ARGAZKI-OIN.- Pie de foto.
BEHAR.- Premia. Necesidad.

TEODORO GANZARAIN: «Psoriasis ez da kutsakorra»

3 Irailaren erdi-aldera bukatzen da uda, eta orduantxe hasten udazkena. Psorasiak **jotakoek** uda maite dute, eguzkia ona baita sendatzeko. Baina **gaitz** honek udazkenean erasotzen du batez ere. Udaberrian ere bai, jakina! Oso jende gutxik nozitzen du gaitza, baina **nozitzen** duenak, berdin dio gizonezko edo emakumezko, ez du onik izango, **amorragarria** baita **ditxosezko** psoriasis. Beste hitz batzuekin esanda, kronikoa. Ez beti baina.

Euskal Herritik kanpo badaude gaitz honen inguruko **elkartek**, baina gurean ez. Gu, psorasiari buruz hitz egiteko, Teodoro Ganzarain dermatologoarekin egon gara. Alabarekin batera duen kontsultan azaldu digu gaitz hau zer den, baita zenbait **uste oker** argitu ere.


HABE.- Hasteko, zer da psoriasis?

TEODORO GANZARAIN.- Azalean azaltzen diren **ezkata** batzuk dira, **tortika**. Horregatik ez da inor hiltzen, baina oraindik ez da aurkitu **behin-betirako** sendatuko duen botikarik. Izan ere, ez dakigu zergatik sortzen den. Beraz, prebentzio-neurririk ezin hartu: ez **txertorik**, ez **pilularik**... Gaitz honen gainean ikerketa asko egin da, baina ez dakigu behin-behineko sendatu ondoren, ezkatak berriro noiz azalduko diren. Aterako direla, gehienetan behintzat, hori bai badakigu.

Itsasoa ona da

H.- Gorputzean non agertzen da psoriasis?

T. G.- Gerrian, **ukalondotan**, **bizkarrezurra** bukatzen den gunean (ipurkonkorrean), belaunetan, **besapetan**... Larriagoa da gorputz osoan agertzen denean. Dainovex



ARGAZIAK: X. ELGEZABAL

KUTSAKOR.- Kutsa(tu)+kor. Contagioso. Era berean: luzakor, gizenkor, maitekor...

JO.- Erasan, erasotu. Atacar, afectar.

GAITZ.- Gaixotasuna, eritasuna.

NOZITU.- Jasan. Sufrir.

EZ DU ONIK IZANGO.- Ez da lasai egongo. No estará bien.

AMORRAGARRI.- Causante de

mucha rabia, fastidioso.

DITXOSEZKO.- Zorionekoa.

Dichoso.

ELKARTE.- Asociación.

USTE OKER.- Equivocación.

EZKATA.- Escama.

TORTIKA.- Costra.

BEHIN-BETIRAKO.- Betirako.

Definitivamente. Aurkakoa: Behin-behineko.

TXERTO.- Vacuna.

PILULA.- Pastilla.

UKALONDO.- Codo.

BIZKARREZUR.- Espina dorsal.

BESAPE.- Beso+pe. Galtzarpea.

Sobaco. Era berean: zubipe, zuhaizpe, elizpe...

ukendua ugari eman behar baldin bada, odolean kaltzioa ugaritzen den ikusi behar da noizean behin. Eta, noski, uda-partean eguzkia hartzea komeni da, eta itsasoko ura ere ona da. Gatzak egingo dio on, pentsatzen dut. Azaleko gaitza duen askori esaten zaio itsasora joateko, **Itsaso Hilera** eta... **Igerilekuetako** ura, berriz, ez da ona, kloroa kaltegarria baita. Kloroak gaiztotu egiten du gaitza.

H.- Eta noiz ateratzen da?

T. G.- Normalean 17-18 urte horien inguruan. Normalean gazte-jendeari, eta batez ere udaberrian, udaren azkenaldera, udazkenean... Gero, norberak zein bizimodu duen, estresak ere **eragina** izan dezake batzuetan, edo **okerreko ukenduaz** igurtzitzeak... Ikusi izan ditut kortisonadun ukenduak eman, bost-sei egunetan garbitu azala eta handik hilabete parera izugarritzko indarrarekin bueltatu zaienak, gorputz osoan, Eritodermia psoriasikoa. Eta hori larriagoa da.

H.- Geneek badute zerikusia; eta hereditarioa al da?

T. G.- Hereditariotik asko du. Gaitzak jotako askok izan dituzte guraso psoriasidunak. Horrek ez du esan nahi guraso batzuen seme-alaba guztiek gaitza nozituko dutenik. Ezta ere gurasoek izandako proportzio berean izango dutenik.

H.- Segun ze jaten den psoriasis ateratzen da. Hori gezurra da, ezta?

T. G.- Bai. Gezurra da. Baina behin eskamak atera eta gero, **bixigarria** duten janari gutxi hartu behar dira. Alkohola eta kafea ere gutxi edatea hobe, tonikak eta horrelakoak ere gutxi...

H.- Eta eguraldiak ba al du zerikusirik?

T. G.- **Hezetasunak badirudi** zerikusia duela. Guri etorri zaizkigu psoriasis dutenak oporretatik bueltan, Kanarietatik edo,



Badirudi Daivonex izeneko ukendua nahikoa ona dela.

sendatuta. Eta gero hemen berriz ere gaisotu.

H.- Hala ere, badaude gaitz horri gogor egiteko moduak.

T. G.- Beno, azken **boladan** atera da Daivonex izeneko ukendu bat. Oso **emaitza** onak lortu ditugu, eta badirudi erabat garbitzen duela gaitza. Egunean bi aldiz igurtzi piskat tortika dagoen lekuan. Baina astean ezin da hogeita hamar gramo baino gehiago eman. Dena den, oraindik ez dakigu ukendu hau emanda noiz arte egongo den azala garbi. Ukendu honek ez dauka kortisonarik. Kortisona behin-behineko sendabidea da, ez du erabat sendatzeko balio.

H.- Kontuz ibili behar al da **izarekin**, toaillarekin. Psoriasis duen ezagun bati hala esan zion behin beste lagun batek: «Aizu, ni ez ikutu, gero!»

T. G.- Psoriasis dutenen izarak edo toaillak erabiltza ez da ezer gertatzen, ezta gaitza duena ikututa ere, edo haren **orrazia** erabiltza. Baina bada kutsatzeko beldurra duenik.

H.- Eta gaisoak ba al du sendatzeko pazientziarik?

T. G.- Pazientzia? Normalean oso gutxi. Gaitz horregatik zeure buruarekin haserretzen bazara, zuretzako kalte. Eskama gehiago aterako zaizkizu. Gaitz hau burutik ezin kendurik bizi denak asko

penatzen du. Zenbat eta gehiago **larritu**, orduan eta okerrago. Gainera, pentsatzen du hondartzara joaten bada, edo igerilekura, guzti-guztiak berari begira egongo direla. Estetikaren aldetik ez da polita askorentzat, baina lasai hartu beharreko kontua da. Konfidantza izan bere buruarekin. Batzuei azterketa-garcian ateratzen zaizkie... Familiak laguntzea eta ulertzea oso inportantea da.

H.- Eta zer da PUVA?

T. G.- Izpi **ultramareak** dira, indar handikoak. Baina ikusia dago ez dutela eraginik. Lagundu lezakete ukendu batzuekin batera hartzen badira, baina hori eguzkia hartzea bezala da, indartsuagoa. Baina PUVAk gauza txar asko du, eta PUVAekin aritu diren lekuetan kentzen ari dira. Izpi horiek behar bezala hartzen ez badira, erre egiten da gorputza. Eta, horrez gain, jende askori begiak **gandutu** egin zaizkio. Eta gertatu izan da baita ere azaleko **minbizia** sortzea, edo melanoma ere.

H.- Eguzkia aitatu duzu. Ona da eguzkia hartzea, baina psoriasisaren kontrako ukendua hartzen duenak igurtzi behar al du eguzkitik babesteko ukendurik gainean?

T. G.- Bai. Ematea hobe. Gainera, eguzkitik babesteko ukendu asko hidratatzaileak dira gaur egun.

UKENDU.- Pomada.
ITSASO HIL.- Mar Muerto.
IGERILEKU.- Piscina.
ERAGIN.- Influenza.
OKERREKO UKENDU.- Pomada indebida.
BIXIGARRI.- Bixitzen duen zerbait. Estimulante.
HEZETASUN.- Ezkotasuna. Humedad.

BADIRUDI.- Ematen du. Parece que.
BOLADA.- Denboraldia. Temporada.
EMAITZA.- Ondorena. Resultado.
IZARA.- Maindirea. Sábana.
ORRAZI.- Peine.

LARRITU.- Estutu, aztoratu. Apurarse.
IZPI ULTRAMORE.- Rayo ultravioleta.
GANDUTU.- Lausotu. Nublar.
MINBIZI.- Kantzerra.

BABARRUNAK GALEPERREKIN

2 Osagaiak: kilo-erdi bat babarrun (beltzak), piper berde handi bat, bi pipermorro, lau baratxuri-ale, bi galeper, oliba-olioa eta gatza.

Babarrunak sutan ipini. Ura **irakiten hasten** denean, olioa eta gatza bota. **Su apalean** eduki ordu betez **lapikoa** estalita. Bitarte horretan galeperrak garbitu eta pipermorroetan sartu haziak kenduta. Piper berdeari ere **haziak** atera eta, galeperren **ordez**, baratxuri-aleak sartu. Ordu betez egosi babarrunekin batera, eta urari kontu egin. Gero, piperrak eta baratxuri-aleak **xehetu**, eta beste hainbeste egin galeperrekin. Babarrun-salda piska bat loditzen denean, galeperrak **erantsi** eta zerbitu.



MAHATSA SENDATZEKO BAI, MEHETZEKO EZ

2 Batzuek mehetzeko mahatsa bakarrik jaten dute zenbait egunetan. Baina mahats-kiloak 730 kaloria ditu. Bi kilok ia 1.500 kaloria dituzte. Egun asko behar dira mehetzeko. **Elikadura-arloko adituek**, ordea, hiru egunetik gora ez luzatzeko esaten dute.

Mahats-zukua **irakin gabea** ona da osasunerako, hala ere. Sarritan edan behar da. Zertarako balio duen? Gazte irauteko, gibela garbitzeko, ahuleria **gainditzeko**...

Oharra: mahats-zukuaz ari gara, ez ardoaz.

KATUA ZAHARTZEN DENEAN

2 Zortzi urterekin edo zahartzen dira katuak. Baina gero ere urte asko irauten dute bizirik. Bizimodu lasaia eta toki epela eskaini behar zaizkie garai horretan. Elikaduran ere badira **aldaketak**. **Otordu** gehiago behar dituzte, baina arinagoak. Ur asko eman behar zaie, bestalde. **Giltzurdinak** agian ez dabilta oso ondo.



BETAURREKOAK GARBI

1 Noizean behin **oihal** goxo batez garbitzen dira betaurrekoak. Baina hori ez da nahikoa. Oihalak ez du **koipea** ondo kentzen. Alkoholak garbitzen du ondo. Alkoholik ez baduzu, erabili **ozpina**.



GALEPER.- Codorniz.
IRAKITEN HASI.- Comenzar a hervir.
SU APAL.- Su motela. Fuego lento o bajo.
LAPIKO.- Eltzea. Puchero.
HAZI.- Pepita, semilla.
ORDEZ.- Partez. En lugar de.

XEHETU.- Txikitu. Desmenuzar.
ERANTSI.- Gehitu. Añadir.
MEHETU.- Argaldu. Enflaquecer.
ELIKADURA-ARLO.- Area de alimentación.
ADITU.- Jakituna. Experto/a.
IRAKIN.- Fermentar.
GABE.- Sin.


AHULERIA.- Debilidad.
GAINDITU.- Goitu. Superar.
ALDAKETA.- Cambio.
OTORDU.- Egunean zehar egin ohi den janaldi bakoitza.
GILTZURDIN.- Riñón.
OIHAL.- Zapia. Paño.
KOIKE.- Grasa.
OZPIN.- Vinagre.

EGUZKI XURIAREN INGURUMARIAN

3 Zientzilariek esaten dutenez, eguzkia, egunen batean, **ahitu** egingo da. Zer egingo dute orduan poetek, norekin parekatuko dute beren maiteñoen **ederra**? Zer egingo dute hainbat erlijioaren jarraitzaileek? Nor **gurtuko** dute ekiaren ordeztu? Eta gurean, **eguzkirik ezean**, zer irudikatuko du **eguzkiloarek**? Nola deituko diote ingelesez domekari, sunday (eguzkiaren eguna)? Lurrak iraungo al du gure konstelazioko izar nagusia itzaltzen denean? Itzala berekin eramango al du eguzkiak? Auskalo; gu, hori gertatu **bitartean**, eguzkiaz mintzatuko gara erreportaia honetan. Ez dugu alderdi zientifikoaz hitz egingo, ezta ere aitatuiko zer duen onetik eta zer txarretik giza osasunerako. Alderdi mitologikoa aitatuiko dugu, gurean eta beste zenbait kulturatan izan duen eta oraindik duen esanahiaz.

Izenarekin hasiko gara. Euskaraz izar horrek baditu hainbat izen: eguzki, iduzki, iguzki, iuzki, euzki, eguzku, ekhi, iki eta abar. J.M.: Barandiaranen «Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972» liburuak dioenez, bere jaioterrian *euzkia* eguzkiaren argia da, eta **izarrari berari** euzkibegi esaten diote. Berastegin, berriz, Jainkoaren begia. Aintzinako Egipton, *Ra* jainkoaren begia, baita *Path*-enarena ere, zen eguzkia, eta mitologia germaniarrean *Odinek* zuen begi bakarra zen izar hau. Beste kultura batzuetan, *Zeusen* begia, edo *Ahura Mazdarena* edo *Alarena*.

Badirudi Antzinako euskaldunek eguzkiaren argiaren sinbolo zen Urtzi, Ortzi, Egu, Ost, Ortiz... gurtzen zutela, eta horri eskainia dagoela osteguna. Alemanian, Ingalaterran legez, eguzkiari eskainia dago igandea, *Sonntag* hitzak eguzkiaren eguna esan nahi baitu. Hizkuntza erromanikoetan, aitzitik, Jaunari eskainia dago: domingo edo dimanche latinezko dies *dominica-tik* (Jaunaren eguna)



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

INGURUMARIAN. - Bueltan. Alrededor.

AHITU. - Bukatu, amaitu.

GURTU. - Erlijiozko gorazarrea egin. Adorar.

EDERRA. - Edertasuna.

EGUZKIRIK EZEAN. - Eguzkirik ez bada. A falta de sol.

EGUZKILORE. - Girasol.

BITARTEAN. - Artean. Mientras.

IZARRARI BERARI. - Ez nahastu «izar berari»ekin. A la estrella misma.

ERATORRI. - Hitz bati aurrizki, artizki edo atzizki bat ezarri, beste hitz bat sortu. Derivar.

EKISAINDU. - Custodia.

OIN-ARRASTO. - Oin-urratsa. hanka-arrastoa. Huella.

TENORE. - Sasoia, aldia. Epoca.

EGUZKIA EZ EZIK. - Eguzkiaz gain,

aparte. Además de sol.

GURDI. - Orga. Carro.

EZAUGARRI. - Seinalea. Hierro, marca.

SEGUN... ZAION. - Euskaraz «segun» erabiltzeak aditzaren bukaeran -n eskatzen du. Beraz, gaizki dago: * Segun nori galdetzen zaio.

ILAZKI. - Ilargia.

eratorritako hitzak dira; gurean toki askotan, domeka esaten zaio igandeari. Igande hitzari buruz, berriz, begira zer dioten goian aitatu dugun liburuak: «Uno de los nombres de lunes —ILEN— parece tener relación igualmente con el de la luna, como también el de domingo —IGANDE—, que corresponde al plenilunio». Bestalde, eguzki-koroaren gaztelerazko baliokideak, *hortak*, santuen koroa izendatzeko ere balio du hizkuntza horretan. Erijiioarekin jarraituz, Eliza Katolikoan, urre, zilar eta beste metal batez egindako tresnak, ostia fededunen aurrean jartzeko erabiltzen denak, **ekisaindu** du izena. Mañari inguruan, berriz, eguzkiari Andra Mari esaten omen zioten. Errigoitin ere santutzat dute ekia, entzun bestela esaldi hau: *Eguzki santu bedeinkatua, zoaz zure amagana*. Eta lehendabiziko mendearen aurretik Budaren **oin-arrastoetan** eguzkiaren irudia marrazten zuten artistek. Judutarrentzat larunbata egun sakratua da, baina Jesukristo berpiztu zen eguna, gaur igandea, **tenore** haietan Helios eguzki jainkoari eskainia zegoen. Gerora erromatarrek egun horri *dies Solis* deituko diote.

Greziarrentzat, berriz, Helios **eguzkia ez ezik** eguzki-izpien sortzailea ere bazen. Eta horregatik marrazten zuten **gurdi**

baten gainean, lau zaldi aurrean, eta buruan eguzki-izpien koroa. EEBBetako Askatasunaren Estatuak ere eguzki-izpiez osatutako koroa du buruan. Indian *Surya* eguzkiaren jainkoa gurdi-lasterketen babeslea zen. Lasterketa horiek zirkoan izaten ziren, eta parte hartzen zuten zaldiei *rota* (gurpila) izeneko **ezaugarri** bat ezartzen zitzaien haragian aberastasun seinale.

Emakumea ala gizasemea?

Eguzkia zer da, emea ala arra, ala biak, edo ez bata ez bestea? Ba **segun nori galdetzen zaion?** Kultura gehienetan eguzkia arra da, goizaren eta suaren antzera. **Ilazkia**, berriz, ura eta gaua bezalaxe, emea. Zenbait hizkuntzatan ele berbera dute goiza eta eguzkia izendatzeko. Esate baterako, japonieraz eta mayen hizkuntzan.

Alemanian igandea da eguzkiaren eguna

Baina indiar txerokientzat hain astro dizdiratsua eta indartsuak emea behar du izan, eta baita alemaniarrentzat ere, *Die Sonne* esaten baitute. Japoniako sintoismoan ere zeruan dir-dir egiten duena, *Amaterasu*, emakumea da. Hebraieraz,

aitzitik, ar eta eme da *Shamash*, biak batera. Gauza bera gertatzen da Indonesiako zenbait parajetan. Ingalaterran ilargiari buruz ari direnean, *she* (ella) esaten diote, eta eguzkiari buruz ari badira, *hé* (él). Gurean ere ez dago garbi zer den. Badirudi lekuri gehienetan emetzat dutela goiko izar hori, baina ez beti. Joxemiel Barandiaranen goraxeago aitaturako hiztegiari azaltzen denez, besteak beste, Elosua, Plentzia eta Arratian ezaguna da **ilundu aurretiko** esaldi hau: *Eguzki amandrea badoia bere amangana*. Bergaran ere ezagutzen dute antzeko esaldirik. Resurreccion Maria de Azkuek ere horrelako **esakune** bat badu Diman jasoa, eguzkia sartzerakoan esaten zena. Hau da, eguzkia lurraren alabatzat dago hartua. Eta Nafarroako zenbait tokitan ere amona esaten omen zioten eguzkiari. Goiko esaldiaren antzeko beste esaldi honetan eguzkiari Santa Clara esaten zaio: *Santa Klara badue bere amagana, biar etorriko da denpora ona ba-da*. Baina Zuberoako **aztura** da norbaiti hortza erortzen zaionean, ekia berri **galdetzea**: *Ekia, igorri zadak berriago bat*. Beraz, eguzkia arra da hemen. Japonieraz, eguzkiak eta suak izen bera dute. Eguzkia eta sua San Juan gauean azaltzen dira loturik batez ere. Maliko dogondarrentzako sua eguzkiaren zati da, eta sortu zen **lehen gizakiak ebatsi** eta lurrera ekarri zuen. Beste sineste batzuetan **txantxangorria** da ekarlea.

Eguzkiaren forma

Eguzkiaren forma du eguzkiloreak, gazteleraz Indiako Eguzkia ere esaten zaio lore honi. Gurpilak ere borobilak dira. Sioux indioak borobilean biltzen ziren, eta horrelako eraikuntzetan lo egiten. **Sioux jendeak** ez du eguzkiarekin lotzen jende zuria, borobilarekin, **karratuarekin baina**. Eskandinabia eta Alpeetan sarri azaltzen da gurpila, askotan eguzkia irudikatuz. Baina gurpila mugimenduari lotua



Oraindik ikusten da baserrietan eguzkilorea.

ILUNDU AURRETIKO.- Ilundu baino lehenagoko. Poco antes del atardecer.
ESAKUNE.- Esaldia, perpausa. Frase.
AZTURA.- Ohitura.
GALDETU.- Eskatu.
IGORRI ZADAK.- Hikako forma, toka. Igor (bidai) iezadak.
LEHEN GIZAKI.- Lehendabiziko

gizakia. El primer ser humano.
EBATSI.- Lapurtu, ostu. Robar.
TXANTXANGORRIA.- Petirrojo.
SIoux JENDEAK.- Sioux herriak.
KARRATUAREKIN BAINA.- Karratuarekin baizik. Iparraldean «baina karratuarekin» ere esaten da.
JAURTIKI.- Bota, bidali. Lanzar.
ZENBAITETAN.- Batzuetan, aldizka,

noizbehinka.
LAMIA.- Euskal Mitologiako pertsonaia bat, emakumezkoa.
-RA BILDU.- Telebistaren aurrean bildu edo aurrera bildu. Biak daude ondo.
KARDILAUN.- Kardaberaren lorea. Flor del cardo.
SARTU AURRETIK.- Sartu baino lehen, sartu aitzin. Antes de entrar,

dago, eta, beraz, espazioari eta denborari. Hungarian, esate batera, gurpilak gurdi eta guzti ageri dira. Mayen artean ere gurpila eguzkiaren baliokide da, nahiz eta mayek gurpilik ez erabili garraiorako. Pilota ere erabili da eguzkiaren sinbolotzat. Antzinako Mexikon aztekek pilotan jokatzen zuten. Pilotalekuak unibertsoa izan nahi zuen, eta kautxoak pilotak ekia. Frantziako Breñan ere ezaguna zen *soule picarde* izeneko pilota-joko bat. Soule hitzak *St. Soul*-ekin du zerikusia, bertako nekazarien artean oso santu estimatua. Santu hau eguzkiaren pertsonifikazioa da. Joko honen jatorria erdi aro kristauan omen dago. Garai hartan, zenbait elizgizonak elkarri pilota **jaurtikitzen** zieten zenbait elizatan.

Jainko askoren begitza hartua izan da eguzkia

Eguzkiloreak gurean dituen beste izen batzuk hauek dira: sorginbelarra eta izurribelarra. Askotan lagundu digun Orhipean liburuan azaltzen denez, eguzkiaren lanak egiten ditu **zenbaitetan** sorginbelarrak. Horregatik gaueko izakiak: sorginak, deabruak, **lamiak... lur barnera** biltzen omen dira eguzkia ateratzen denean, eta, beraz, etxeetan sar ez daitezen eguzkiloreak jartzen dira baserrietako ateetan. Baita ekaitz eta tximistetatik babesteko ere. **Kardilauna** ere eguzkia irudikatzeko erabiltzen da, Barandiaranen Obras Completas-en ageri denez. Eta Bizkaiko sineste legez aitatzen da Jericoko larrosak orriak bildu eta tximurtzen dituenean, eguraldi ona aterako dela. Eta eguzkia **sartu aurretik, eltxo** txikiak elkartu eta hegan egiten badute, eguraldi onak **iraun** egingo du.

Gurean eguzkiaren irudia, ilazkiarena ez horrenbeste, **usu** ageri da **hilerrietan** eta **atalburuko** harri eta elizatako jarlekuetan. Irudi horietako

batzuk azaltzen dira oraintxe airtatu dugun liburu horren 44-45 orrialdeetan. Hortxe ageri dira, baita ere, eguzkia lotara doanean, zer esaten zaion. Esaldi bitxi bat jartzekotan, Luzaideko haxe: *«Bihar artio, Joanes, zauri bihar muga onez!* Hain gogoan dugun L.P. Peña Santiagok hala dio *Arte Popular Vasco* izeneko bere liburuan. Hilarrietan azaltzen diren irudiak era askotakoak direla, baina irudi pagano hauen artean lore sei-hostodunak eta eguzkiaren irudiko diskoak direla usuenak. Liburu honen **akabera** azaltzen dira irudi horietarik zenbait.

Ekialdean zein kolore?

Hasiera-hasierako kristauak ekialdera begira egiten zuten errezu, eta hara begira daude otoizleku asko —Euskal Herriko baserri ugari, eta trikuharriak ere bai—. Gaur egun ere jende askok egiten dio otoitz eguzkiari. Batzuek eskuak gurutzatuta, eta beste batzuek Antzinako Egipton legez, eskuak gorantz, besoak zabal-zabalik, eta ukalondoak lurrerantz. Egipton, Akhenatonen garaian, santutegi estaligabeko asko eta asko eraiki zituzten, horrela eguzkiari

«bere osotasunean» otoitz egiteko. Bestalde, nolabait **esate arren**, eguzkiaren kolorea «urrea» zen edo «urre-itxurakoa». Babilonian, esate batera, baziren eskailera modura egindako dorre batzuk, eta haietan eguzkiari eskainitako gela urre kolorekoa zen. Poesian ere ile **horailari** urre-kolorekoa esan zaio, eta eguzkiaren distirarekin **parekatu** izan da batzuetan. Bestela, begiratu Lizardiren poema hau: *«Eguzki, yaun orail eder, legorteen aita».*

P. Perurenaren ustez, Lizardik kristautu egin du ekia

Dena den, hona P. Perurenaren oharra: «Eguzkia da gure jainkosa zaharra. Konforme. Baina ez Lizardik deskribitzen duen Yaun orail, legorteen aita; **egunsentian ongi etorrika** hartzen dugun amandre xuria baizik. ...Lizardiren gogoak kristautu egiten du gure eguzkiaren argi zaharra. Yaun orail bihurtu, gure **Amandre** xuria».



Gurean badirudi ekia emakume dela endemas.

de ponerse.
ELTXO.- Intsektu hegalaria, hanka luze eta meheak dituen, pertsona eta abereei ziztada mingarriak egiten dizkiena. Mosquito.
IRAUN.- Egoera jakin bati eutsi. Permanecer, durar.
USU.- Sarri, maiz.
HILERRI.- Hil+herri. Kanposantua.

Cementerio.
ATALBURU.- Dintel.
ZAURI BIHAR MUGA ONEZ.- Zatoz bihar goizean goiz.
AKABERA.- Bukaera, hondarra. Final.
EKIALDE.- Sortaldea. Oriente.
ESATE ARREN.- Esateko, esate aldera. Para decirlo.
HORAIL.- Giza ileari buruz hitz

eginez, kolore argienekoa, horiaren antzekoa dena. Rubio/a.
PAKATU.- Alderatu, konparatu.
EGUNSENTI.- Amanecer.
ONGI ETORRI.- Bienvenido.
AMANDRE.- Leku batzuetan ama, beste batzuetan amona, amabixia ere bai...

DIEGO GARZIARI KANTA ESKAINI


2 Laja eta Landakanda trikitilariek Diego Garzia korrikalariari **eskaini** diote «Gure Oroitgarri» diskoko **azkenaurreko** kanta. Kaxianori eskainitako kantarik ere bada, baita gaur egungo **gairik** ere.

IZk plazaratutako disko honetan **zenbait bertsolarik** ere hartu dute parte, Egaña eta S. Lizasok **esaterako**, Lotuan nahiz librean dantzatzeko moduko abestiak daude, bestalde.



DEL PRADOTIK DONOSTIARA

2 Pinturazale eta erretratuzaleek izango dute zer ikusia eta zerekin gozatua azaro-abenduan. XIX. mendean **margotutako** 46 koadro izango dira San Telmo museoa. Erretratatutakoak idazleak dira guztiak. Hilabete osoan egongo da **erakusketa** gure artean.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

PASTORALA

2 **Burutu** den azken pastoralak bi **ezaugarri** berri ditu: bata euskara batua erabili dutela eta bestea Zuberoatik kanpoko herri batek egin duela, Donaxiti-Ibarrek **hain zuzen**. Herriska hau Nafarroa Beherean dago, eta beren **herrikide** bati **buruzkoa** da egin duten **emanaldia**, San Mixel Garikoitz apaizari buruzkoa.

Pastoralez, zerbait gehiago jakin nahi baduzue, ondo etorriko zaizue sarri **aitatu** dugun *Orhipean* liburua irakurtzea.

ERDI AROKO OHITURAK

2 Erdi Aroa modan jarri du Otto Pette liburuak. Garai iluna Erdi Aroa! **Aharrausi** egiten dugunean, eskua jartzen dugu ahoaren parean. Orduko ohitura batetik dator beste hau, **antza**. Amek haurrei ahoa ixten zieten **Galtzagorri** ez sartzeko, edo ahoaren parean **gurutze egiten** zuten. Dena den, Otto Petterekin ez duzue charrau-sirik egingo.

ESKAINI.- Dedicar.
AZKENAURREKO.- Penúltimo.
GAI.- Tema.
ZENBAIT BERTSOLARI.- Bertsolari batzuek.
ESATERAKO.- Adibidez. Por ejemplo.
BURUTU.- Gauzatu, zertu. Realizar.
EZAUGARRI.- Berezitasuna. Característica.

HAİN ZUZEN.- Hain juxtu. Concretamente, precisamente.
HERRIKIDE.- Herri berekoa. Paisano.
BURUZ.- Acerca de, sobre.
EMANALDI.- Saioa. Actuación.
AITATU.- Aipatu. Mencionar.
MARGOTU.- Pintar.
ERAKUSKETA.- Exposición.
ERDI ARO.- Edad Media.

OHITURA.- Usarioa. Costumbre.
AHARRAUSI EGIN.- Aho-zabalka egon. Bostezar.
ANTZA.- Dirudienez, nonbait. Al parecer.
GALTZAGORRI.- Deabrua. Diablo.
GURUTZE EGIN.- Zinatu. Hacer la señal de la cruz.

JANARI BERRIAK GURE MAHAietan

3 Etorkizunean, betiko janariekin batera, gure beharretara **egokitutakoak** agertuko dira. Janari berri horiek ez dira baratzetik zuzenean etorriko, lehenbizi laborategitik pasako baitira.

Badirudi pilula ez dela janariaren **oinarri bihurtuko** etorkizunean. Pentsa gure beharrak asebetetzeko mila pilula inguru behar direla... Hortaz, **jatenaren** geroa ez doala pilularen bidetik **esan daiteke**.

Orain dela milaka urte jaten ziren gauzak jaten omen ditugu gaur egun ere. Edozein **otordutan** oinarrizkoak ditugu orain ere ogia, ardoa, olibaren zukua, esnea, haragia, arraina eta barazkiak.

Hala ere, salgai daude beste produktu berri batzuk: alkoholik gabeko garagardoa, **esnegainik** gabeko UHT esnea, angulen ordezkioak edo erdi-**-aran** erdi-**-muxika** den fruitua.

«Supertomateak» eta

Ingeniaritza genetikoak prestatutako janariak sortzen dute **mesfidantzarik** handiena. Eta, horiek dira elikagairik berrienak, hain zuzen ere. Estatu Batuetan saltzen ari dira jadanik Flavr Savr izeneko tomate berria, kolorea eta beste **ezaugarriak** eta galtzen ez dituenak. Antzeko zerbaite gertatzen da behien somatropinarekin, behiei esne gehiago emanarazten dien hormonarekin, alegia.

Ingenieritzak **izugarri** zabaldu ditu mugak. Eta, bestalde, etorkizunean zenbait **eritasuni** aurre egiteko janariak **ekoiztuko** omen dira: **oldarkortasuna** gutxitzekoak, depresiozko egoera batzuk zuzentzekoak edota antsietatea arintzekoak. Horietaz gain, izango dira zaporeari hobeto eutsiko diotenak edota **mikrouhinezko labeetan** egokiago **maneatuko** direnak ere.

Arrainen arloan arrain-antzekoak dira berrienak: arrain merke eta ugarien bidez egindako arrain garesti eta urrien ordezkioak. Horrela, bada, merkatuan dira angulen eta txangurroen antzekoak; txipiroi-hamburgesa eta sardinekin egindako antxoaren antzekoa.

Haragitan berriena proteina eta **koipeen** arteko nahasketak dira. Mortadela eta saltxitxa-motak ugaritu egin daitezke, esaterako, animalia koipeak gutxituz eta barazki-koipeak ugarituz.

Esnekietan, bada arrain-surimiaren pareko lehengai berri, erabilterraz eta merke bat: WPC izeneko **gazuraren** proteina, oso egokia batido, natila eta postreak egiteko.



EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.
BADIRUDI.- Ematen du. Parece que.
PILULA.- Píldora.
OINARRI.- Funtsa. Base.
BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.
JATEN.- Jakia, janaria. Alimento.
ESAN DAITEKE.- Se puede decir.
ESNEGAIN.- Nata.
ARAN.- Ciruela.

MUXIKA.- Melocotón.
MESFIDANTZA.- Desconfianza.
EZAUGARRI.- Berezitasuna. Característica.
IZUGARRI.- Erruz. Muchísimo.
ERITASUN.- Gaixotasuna. Enfermedad.
EKOIZTU.- Producir.

OLDARKORTASUN.- Agresividad.
MIKROUHINEZKO LABE.- Horno microondas.
MANEATU.- Prestatu, atondu. Preparar.
KOIKE.- Grasa.
GAZUR.- Suero.

LIBURUAK



LAGUNEKIN BARATZEAN

Catherine Szabo
Kanadako Eskaintza eta
Zerbitzuen Ministeritza, 252 orr.

2 Liburu hau neska-mutilen arteko harremanak **garatzen** laguntzeko eskolako materiala da. Bi **liburuki** dira. Bata Irakasle eta Gurasoentzako Gida Liburua, eta bestea Ipuin-liburua. Bost-bederatzi urte bitarteko haurrei zuzenduta daude liburuak. Programa zabalago baten zati dira. Programa honek haurren harreman psiko-afektiboa lantzen lagundu nahi du, baita **ongizate** eta osasunaren oinarritzko ohiturak **bereganatzen ere**, eta drogen gehiegizko erabilerari **aurre egiten**. Kanadan hamar urtetik gora daramatzate programa honetan lanean eta oso emaitza onak lortu dituzte irakasle askok. Liburuak ez daude salgai. Eskuratu nahi badituzue, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusira jo.



JENTILAK, SORGINAK ETA BESTE

(Euskal
Pentsamendu Magikoa II)
Juan Garmendia Larrañaga
Elkar, 104 orr., 800 pta.

2 «Euskal Pentsamendu magikoa I» haren **ondorena** da honako liburu hau. Izenburuak dioen bezala, gure mitologiako **izakiak** azaltzen dira liburuan, gure herri-irudimeneko izaki

fantastikoak. Herriak gorde bezala jaso ditu tolosar idazle **oparoak**. Horretarako, baserriz baserri ibili da informazioa jasotzen: Tolosan, Bidaion, Amezketan, Otsagin, Uitzin, Arraiozen, Irunen, Berastegin, Leitzan, Allin... izan ditu **berri-emaileak**.



1948ko UDA

Patxi Zubizarreta
SM, 112 orr., 750 pta.

2 Patxi Zubizarretak elkarrizketaren batean esana da maitasuna era askotara **mamitzen** dela, eta gurasoen garai **gezi-gezak** ezagutzeak guraso horiek konprenitzen, eta maitatzen agian, laguntzen baitu, beharbada horregatik idatziko zuen istorio xamur hau. Beñatek bere aitaren egunkari ezkutua aurkitu du, eta konturatu da egunkari horretan azaltzen den neska kuttuna —atzerritarra portzierto— ez dela aitaren emaztea. Egunkariak diktadura-garaira darama irakurlea. Oso ondo adierazten du Beñatek zer den diktadura. Bestalde, herri txikia eta hiria **uztartzen** saiatzen da P. Zubizarreta. Eta aitaren istorioa eta Beñatena berarena.

Hizkeraren aldetik gauzatxo bat. P. Zubizarreta saiatzen da gipuzkera ez diren hitzak literaturara ekartzen, eta, esate baterako, perpausa adbertsatiboetan beti **ostera** erabiltzen du; irakurleren batek edo bestek ez du jakingo hitz hori zer den, baina kontestuan argi geratzen da. **Berariaz** egindako aukera da. Bukatzeko hauxe: liburu honek 1993an «Baporea» Lehen Saria irabazi zuela.



EKOLOGIA ALA HIL

(Ekologiaren oinarritzko kontzeptuak)
GAIK Argitaldaria, 78 orr., 950 pta.

2 Greenpeace taldea CO2a gutxitzeko kanpaina burutzen ari den honetan, ondo etorriko zaigu liburu honetako 66. orrialdeko irudiari **erreparatzea** Lurra nola **hondatzen** dugun ikusteko. Irudi horretan ageri den euri azido da **lurzorua** gaitzearen arrazoietakoa bat. 59. orrialdean azaltzen denez, segundo bakoitzeko 3.000 tona lurzoru gaitzen dira. Eta gizakiak sortzen du euri azido nazkante hori. Liburua irakurri ostean konturatuko gara izenburuan azaltzen den aukera ez dela hiperbolea, eta naturaren zati garela, eta hori ulertzen ez duen bitartean **jai duela** zibilizazio honek.



POSTARIAK BETI DEITZEN DU MILA ALDIZ

Andreu Martín-Jaume Ribera
Elkar, 168 orr., 950 pta.

2 Gazteentzako detektibe-istorio bat duzue honako hau. Baita maitasunezko istorio bat ere. Pelikuletan bezala, zintzoak eta gaiztoak daude. Maitasunezko istorioa den aldetik, **xarmagarria** eta umoretsua da nobela, baina detektibeen istorioa den aldetik, hain **inozo** eta **ganorabako** agertzen dira lapurrak... Liburuaren **hondarrean** esaten den bezala: «Polizi nobela izateko ez dago hain gaizki... baina irakurri ditut hobeak».

Jon Zabalegi

GARATU.- Desarrollar.
LIBURUKI.- Tomo.
ONGIZATE.- Bienestar.
BEREKANATU.- Bereganatu.
Apropiarse. Era berean:
nereganatu, gureganatu...
AURRE EGIN.- Buru egin, aurpegia eman. Afrontar.
ONDOREN.- Jarraipena.
IZAKI.- Ser.

OPARO.- Naharoa. Fértil, abundante.
BERRI-EMAILE.- Informatzailea.
MAMITU.- Gatzatu. Cuajar.
GAZI-GEZA.- Agridulce.
UZTARTU.- Lotu.
OSTERA.- Berriz, aldiz.
BERARIAZ.- Nahita, propio. Adrede.
ERREPARATU.- Reparar, fijarse.

HONDATU.- Galdu, alferrik galdu. Estropear.
LURZORU.- Capa terrestre.
JAI DUELA.- Ez duela zer eginik. Que no tiene nada que hacer.
XARMANGARRI.- Liluragarria. Encantador.
INOZO.- Inuxentea. Ingenuo.
GANORABAKO.- Sustantziarik gabekoa. Sin fundamento.
HONDAR.- Bukaera, amaiera.

FERNANDO TELLETXEA: «Zoritxarrez, artista jaio nintzen»

3 «Berriz jaiotzekotan zer izan nahiko nukeen? Orain naizena. **Sufrimenduak sufrimendu**, naizen bezalakoa jaio nahiko nuke. Ez zait egindakoa damutzen», dio elkarrizketaren bukaeran Madrilen bizi den errenteriar honek. Liburu autobiografikoa idatzi du duela gutxi, baina ez da ohiko autobiografia. Zer gertatu den baino axola gehiago dio gertatutakoak barruan izan duen **oihartzunak**. «La Muerte de Mikel» Famari jendaurrean **ospea** eman zion pelikula, adibidez, ez du aipatu ere egiten. Guk beste hari horri egin diogu tira.

Elurra ari zuen batean jaio zen Fernando, 1948an. Familiako hamargarrena eta azkena. Eta, azkena zelako edo, amaren eta arreben maitasun eta hitz goxoak beretzat izan zituen batez ere. Aita Pasaiaiko portuko langilea: «Gizon **iharra** eta luzea, Grecoren margoetatik aterea bezala. Ez zen **limurkeriatarako** gizona, lotsatu egiten baitzen. Txikitari ez ninduela maite uste nuen. Harekin ohean nengoenean, Pasaiaiko Santa Faustinaaren istorioa nuen gogoan, nola aitak hil zuen **kristautu** zelako. Maite ez ninduenez, beharbada Santa Faustina bezala hilko ote ninduen beldurrez egoten nintzen. Behin, ordea, ni lotan nengoelakoan, aurpegia eta burua **lantzantzen** hasi zitzaidan. Orduantxe konturatu nintzen maite ninduela».

Etxeko goxotik kanpoalde beldurgarria

Haurtzaroan bi mundu bizi izan zituen: bata, zoriontsua, etxeko goxoan, familia, amona... Familia guztia kafe-eltzearen berotasunera biltzen zen; bestea, kanpoko, **babesik** gabea: «Babesik gabe egiazko mundura irtefez ez zen erraza niretzat. Ez

nintzen beste mutikoak bezalakoa, barru-barrutik **emea** nintzen, horren **itxurarik** ez banuen ere».

«Ume-umetan, lau urterekin, arreba batekin hasi nintzen zinera joaten, eta izugarri zaletu. **Zurezko jarleku** haietan eserita bi pelikula

segidan ikustea, **hura gozamen!** Eta hori ere ez zen garaiko mutikoentzat guztiz normala. Aktore eta aktoresak ondo ezagutzen nituen, eta banekien bereizten zeinek **antzezten** zuen ondo eta zeinek gaizki. Bette Davis aktorea izugarri ona zela esaten banuen, horrek harritu



«Nire gurasoek hamar seme-alaba izan zituzten, ni azkena».

SUFRIMENDUAK SUFRIMENDU.-

Sufrimenduak sufrimendu izanik ere. Sufrimientos aparte.

OIHARTZUN.- Eco.

OSPE.- Sona, fama.

IHAR.- Argala, medarra.

Aurkakoa: gizen.

LIMURKERIA.- Koipekeria, zurikeria,

enbustekeria. Zalameria.

KRISTAUTU.- Kristau egin. Hacerse cristiano/a.

LAZTANDU.- Ferekatu, palagatu.

Acariciar.

HAURTZARO.- Haurtzar+aro. Haur-garaia. Epoca de la infancia. Era berean: zahartzaro, helduaro, gaztaro...

BABES.- Geriza. Protección.

EME.- Hembra.

ITXURA.- Jitea, planta. Aspecto.

ZUR.- Egurra. Madera.

JARLEKU.- Eserlekua, aulkia.

Asiento.

HURA GOZAMENA! - ¡Qué gozada!

ANTZEZTU.- Antzezleak egiten duena. Escenificar.

egiten zuen jendea. Emakumezkoak nituen gogoko, antzeztean ez baitute beren **emetasuna azpimarratu** beharrik, diren bezalakook azaltzen dira. Gizasemeak, berriz, beren **ar-izakera** erakutsi behar beti. Horregatik ez zitzaizkidan hainbeste gustatzen». Antzezle **kuttunak** aipatzen hasi denean, **begiak diz-diz jarri** zaizkio. Zoritzarrez, garai batekoak dira denak, egungo zineak ez baitu ezer onik ekarri Famaren ustez: «Hollywoodera joatea zen nire ametsa, eta pantailan ikusten nituenekin lan egitea. Denak hil zaizkit, ordea».

Soprano-ahotsa; itxura gizonezkoarena

Kantari-**sena** ere txikitatik omen datorkio, arreba zaharrenarekin eta amarekin ikasi zuela kantatzen: «Amari behin baino gehiagotan aditu nion artista izan nahi zukeela. Baina hori ez da aukeratzen. Artista **berez** da artista, eta ni, zoritzarrez, artista nintzen. Horrek sufrimendu handiak ekarri dizkit». Boleroak..., musika latino guztia gogokoa zuen, eta Ameriketatik zetozen aireak, jazz, bluesa... Irratiarekin batera abesten zuen etengabe.



«Nere anaia Estebanekin, Errenteriako umerik ederrenak azaltzen ziren aldizkarian. Ezkerrekoa naiz ni».



«Marisol lehengusinarekin dantzan».


Hamabost-hamasei urterekin Frantziako iparraldean, Suitzako mugaren ondoan, egon zen zortzi hilabetez eta jendaurrean kantari hasi: «Kabaretetan abestu nahi nuen, baina ezin, adinik ez nuelako. Kanean eta hasi nintzen kantari. Oso gogoan dut behin Geneban gertatutakoa. Kanean kantatzen ari nintzela jende-mordoa inguratu zitzaidan entzutera. Berehala **non datorren** polizia handik alde egiteko esatera. Jendearen joan-etorrian traba omen nintzen».

Hamasei urterekin Donostiako abesti-**lehiaketa** bat irabazi zuen: «Nire soprano-ahotsean Los niños del Pireo eta Los gitanos kantatzen sekulako arrakasta izan nuen. Dena egina nuela uste nuen, eta Madrilera jo nuen diskoak grabatzeko asmotan. Baina ezin... Behar baino hobeto kantatzen nuen diskoak grabatzeko, eta ea zer egin behar zuten nire gizon-itxura eta emakume-ahotsarekin?». Parisera joan zen ondoren, eta handik ere itzuli egin behar, aita hil baitzitzaion. Etxean gelditu zen ama zaintzen **bihotzekoak** izaten zituelako: «Halako batean, nola ez dakigula, gogortu egin zen ama, eta banoa Londonera. Jatetxe batean aritzen nintzen arratsaldeko zortzietatik goizeko ordu bata arte kantatzen. Soldata

19.500 pezeta, liberatan ez dakit». Eguberrietan etxera bisitan etorri eta berriz sartzen utzi ez.

Emakume-itxura hartu behar aurrera egiteko

Madriren da berriz. Emakume-ahotsa onartzen ez zutenez, emakume-itxura hartzea erabaki zuen, bere ahotsarekin bat egiteko. «El Vuelo de Fama» **antolatu** zuen, kabaret alemaniarren antzeko **ikuskitzuna**: «Ez zuen ezertarako balio izan. Orduko ohitura zen emakume-itxura hartzen zuenak, emakumezkoak imitatzea. Ez zen zuzenean kantatzen. Play Back izaten zen. Nik abestu egiten nuen, ordea, eta jendea galdezka ea zein imitatzen ari nintzen... Hala ere, disko bat grabatu nuen». Emakume-itxura hark eman zion **sarbidea** zinean. Imanol Uribek «La Muerte de Mikel» en paper nagusietako bat eman zion, Imanol Ariasen **maialearena**. Jende askok orduantxe ezagutu zuen Fama. Lan polita egin zuen: «Imanol Uribek esan zidan Mikel ez ezik ikusleak ere maitemindu behar



«Parisen. Hamabi egun bakarrik egin nituen han, aitaren hiletara etorri behar izan bainuen».

EMETASUN.- Eme+tasun. -TASUN atzizkiak kualitatea adierazten du. Esate baterako: edertasun, zaletasun, zoriontasun...
AZPIMARRATU.- Nabarmendu. Subrayar, destacar.
AR-IZAKERA.- El ser macho.
KUTTUN.- Maitea, laztana. Querido/a.
BEGIAK DIZ-DIZ JARRI.- Brillar los ojos.

SEN.- Instinto, sentido.
BEREZ.- Jatorriz, izatez. Naturalmente.
NON DATORREN.- Hara hor non datorren .He aquí que viene.
LEHIAKETA.- Concurso, competición.
BIHOTZKO.- Infarto, ataque cardíaco.

ANTOLATU.- Eratu, tajutu. Organizar.
IKUSKIZUN.- Espectáculo.
SARBIDE.- Sartzeko bidea edo modua. Entrada.
MAITALE.- Amorantea. Amante.



«Genara eta Carmenekin Tiffanis-en».

nituela. Eta lortu ere lortu nuela uste dut. Zoritzarrez, zuzendaria ez zen konturatu artista bat zuela aurrean, transformista-paperaz gain beste mota askotako lanak egiterik banuela». Handik urte-batzuetara «Luces de Bohemia» pelikulan amaren papera hartu zuen, manifestaldian semea tiroz hiltzen dioten amarena. Valle Inclanen seme-alabei baimena eskatu behar izan zieten aurretik, eta haiek baietz, aitaren gustukoa izango zela ama hura. Lana gustora egin zuen Fernandok. Zuzendariak muntaiari gertuko bi plano moztu zizkionean, ordea, **sutan jarri** zen: «Bi plano horiek lortu egin ditut gero neuretzat. Horrela, zera esatea izango dut: *hauxe da nik egindako lana eta hauxe pelikula*».



«La muerte de Mikel» pelikulan. Argazkia HABEko artxibotik atera dugu, Fernandok ez baitigu horrelako argazkirik ekarri.

Gero ere transformista-papera egina da Hervé Hachuel-en «Banter» pelikulan, Tony Curtisekin batera. Telebistan ere egin izan du horrelakorik. «Farmacia de Guardia»n esate baterako. Baina piska bat nazkatuta dago, horretarako bakarrik dei egiten diotelako. Kantatzen ere aspertu da. Ez du diskotekaz diskoteka ibili nahi, ezta disketxez disketxe mesede eske ere. Antzokietan abestu nahi luke «A media luz con ...Fama» tango-ikuskizunean, ibili zen bezalaxe.

Bitartean literaturara jo du. Badira hilabete batzuk «Fama» izeneko autobiografia kalean duela: «Zerbait esan beharra nuen bakoitzean idatzi egiten nuen. **Hainbestetan** izan dut neure buruarekin hitz egin

beharra! Idaztea lan gogorra ote den? Ez. Niri bizitzea iruditzen zait gogorra, latza... Goizetan jaikitzeke lanak izaten ditut. Liburua idatzi nuenean tristurak jota idazten nuen. Baina orain ikasi dut ofizioa. Orain badakit pozik nagoenean ere idazten. Eta oso polita da idaztea. Ni neu naiz zuzendaria, aktorea, musikaria...den-dena». Beste liburu batzuk ere baditu bidean: Baztango ipuin-bilduma bat, etxeko sukaldaritzari buruzko beste bat, eta bere bizitzan ezagutu dituen pertsonaia berezien **bilduma**.

Ea zer egin behar zuten nire gizon-itxura eta emakume-ahotsarekin?»

Fernandok oso **sentibera** dela aitortu digu bukaeran, nabarmen gelditzeko beldurra izan duela beti, zine-aretoan ilunpetan sartzen zela eta ilunpetan ateratzen. Artista-ofizioa jendaurrekoa izan, ordea. Bere lotsak barruan gorde behar, beraz.



«Ama hil eta handik gutxira. Denek uste dute txakurra daukadala besoetan. Baina ez da horrela. Ardi-larruzko jaka bat da».

SUTAN JARRI.- Zeharo haserretu.

HAINBESTETAN.- Tantas veces.

BILDUMA.- Sorta, saila. Colección.
SENTIBERA.- Sensible.

METADONA HEROINA BAINO EGOKIAGOA

3 Duela bi urte t'erdi pasatxo hasi ziren Hegoaldeko zenbait heroinazale metadona hartzen. Orain Iparraldekoiei iritsi zaie txanda. Irail honetan Baionan irekiko da horretarako bulego bat. Heroinazaleei droga eman? Eztabaida handia dago gai honen inguruan. Metadona, **berez**, hotz-hotzean, hartuta droga da, heroina eta morfinaren taldekoa; «baina sendagilearen aginduz, dosi jakin batzuetan eta **helburu** terapeutikoarekin hartzen bada, ez da droga, botika baizik» dio Edurne Zapirainek, Donostiako BITARTE **egoitzako** sendagileak. Morfina ere askotan erabiltzen da ospitaleetan irtenbiderik ez duten gaisoei mina arintzeko. Horrelakoetan jendeak ez du aparteko kezkarik izaten. Zergatik? Erabilera horretan droga botika bihurtu delako.

Metadona-**egitarauaren** lehenbiziko helburua osasun-sarearekin hartuemanik ez duen heroinazalea **erakartzea** da. Izan ere, asko osasun-egituratik kanpo bizi dira, osasun-arazo larriak izan arren: hepatitis, tuberkulosia, HIESaren birusa, heroinaren gehiegizko dosiak... Erakarri, sendabidea eskaini, eta toxikozaletasunari irtenbidea eman ere bai. Metadona eskaintzen zaio egunero-egunero, lehen hartzen zuen drogaren orde. Ahoz hartzen denez, ez dago **xiringak** ekartzen zituen **zoldura** eta gehiegizko dosien arriskurik. Bestalde, bizimodua aldatzeko aukera eskaintzen zaio, berriz ere gizarteratzeko. Besteak beste, ez dute lapurretara eta jo beharrik izango.

Eskea eskaintza baino handiagoa

Donostiako BITARTE egoitzan drogomenpekotasunean **aditua** den sendagile bat, psikiatri alorreko lau **erizain** eta

administratiboa bat ari dira lanean. 1992ko urtarriletik hona 339 drogazale izan dituzte sendabidean, orain 131 lagunek jarraitzen badute ere. Eskea, hala

ere, handiagoa da. Uztailaren bukaeran 59 drogazale zeuden sarrera-zerrendan zain. Drogazalea ez da zuzenean joaten BITARTEra. Osasun



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

BEREZ. - De suyo, propiamente hablando

HELBURU. - Xedea. Objetivo.

EGOITZA. - Sede.

EGITARAU. - Programa.

ERAKARRI. - Atraer.

XIRINGA. - Jeringa.

ZOLDURA. - Infección.

ADITU. - Jakintsua. Experto.

ERIZAIN. - Eri+zain. Gaisozaina.

Enfermero/a. Era berean: basozain, ethezain, atezain...

Mentaleko Zentruak bideratu behar du hara, eta hor ez dute **nolanahi** hartzen. Zein hartu eta zein ez erabakitzeak irizpideak badira. **Haurdun** daudenak berehala sartzen dira. Drogari uzteko egitarauetan **zenbaitetan porrot egindakoek** eta osasun-arazo larriak dituztenek ere **lehentasuna** dute.

Behin sartuz gero, sendagileak erabakitzen du zenbateko dosia hartu behar duen egunero, aurretik hartzen zuen dosiaren **arabera**. Helburua drogari ezak sortzen duen **egonezina saihestea** da, horretxek beldurtzen baititu. Metadonak narkotikoen bidean traba sortzen du. Metadonaz gain heroina hartzeak ez die gozamenik sortzen. Beraz, alferrik da heroina hartzea. Hala ere, heroinazaleak badu lehengora itzultzeko tentazioa, xiringarako **grina** zaila baita saihesten. Horregatik, hasieran toxikorik ez hartzeko konpromezua hartu behar dute, **hitzarmen** bat **sinatuta**. Astean **bitan** aztertuko zaie txiza, zuzen ari ote diren ziurtatzeko. Sei hilabetetan hamar txiza-analisiatan opioaren **eratorrien** edo kokainaren arrastorik azaltzen bada, egitarau honetatik kanpora doaz. Ehundik gora lagunek hautsi dute hitzarmen terapeutikoa eta, beraz, kanpoan gelditu dira.

Beste helburu batzuetara iristeko makulua

Baina, aurretik esan bezala, helburua ez da metadona **banatze hutsa**, «metadona beste helburu batzuetara iristeko makulua besterik ez da» sendagileak. Drogazaleak egunero joan behar du BITARTEra, dagokion osasun-arduradunarengana. Hark metadona emateaz gain, bestelako osasun-arazoak, gorputzekoak zein burukoak, bideratzen lagunduko dio. Psikiatrarengana joan behar badu, psikiatrarengana bidali, HIESaren inguruko gaitzen **jarraipena** egin behar bazaio, dagokion zerbitzura bidali... Drogazaleek askotan auziak izaten dituztenez, epaileentzat



Metadona edan egiten da. BITARTEKO arduradunek, ordea, ez zuten egoitzan argazkilaririk nahi.

txostenak ere prestatzen dituzte behin baino gehiagotan, nolako jarraipena duten eta adierazteko.

Metadona oso lagungarri ona da bergizarteratzeko. Batzuk goizeko zortziak eta laurdenetan joaten dira Gros auzoko kontsultara, metadona hartu eta lanera. **Biharamunera** arte lasai. Ez dute gehiagoren beharrik. Ostiralean, berriz, bi dosi ematen dizkiete etxera eramateko. BITARTEN denbora gutxi daramatenak eta huts egindakoak metadonaren ardura izango duen baten batekin joango dira. Besteak, ordea, bakar-bakarrik joan daitezke bila. Beren buruaren jabe dira eta badakite egunean egunekoa hartzen. Badira, bestalde, astean behin 7 eguneko metadona jasotzen dutenak ere. Horretarako, programan zuzen jokatu behar, jakina! Askatasun handia eskaintzen die horrek besteak bezala bizitzeko. Adibidez, Eibartik edo Zumarragatik egunero Donostiara joan-etorria egitea ez da batere egokia. Horrela **konturatzen** dira ez daudela metadonaren menpean, egunean egunekoa bakarrik hartzeko gai direla.

Batzuek zera galdetzen dute: «Baina zenbatek lortu dute metadona eta dena uztea?».

Orain arte hogeita bostek Groseko egoitzan. «Hogeita bostek bakarrik?» jendeak. Metadona-egitarau honen lehentasuna ez da metadona baztertzea. Uzten badute hobe, jakina! Baina esan digutenez, gehiago kezkatzen dituzte metadona-egitarauetik kanpora atera diren 105 lagunek: «Munduko osasun-erakunde guztiak horiekin daude kezkatuta batez ere -Eduarne sendagileak-, berriz ere heroinara joko baitute. Legez kanpora biziko dira berriz ere, osasun-saretik kanpora, ospitaleetara gero eta egoera larriagoan **iritsiz**».

Toxikoak erabat uzteko **saioa** egitea hobe dela? BITARTEN ibilitako ia guztiak ibili dira inoiz horrelako egitarauetan, baina porrot egin dute. Ezin izan dute droga utzi: «Gehienek hamar urtetik gora daramate drogaren menpean, osasun-arazo izugarriak dituzte —seropositiboak dira gehienak—, epaituak izan dira, edo epaiketaren zain daude, beren kargu egingo den senitartekorik ez dute inguruan...» German erizainak. Hortaz, aukerak ez dira metadona ala drogari gabe bizitzea, metadona ala heroina baizik. Eta zein da hobe osasunerako eta gizarteratzeko?

NOLANAHI.- Edonola. De cualquier manera.
HAURDUN.- Embarazada.
ZENBAITETAN.- Batzuetan. A veces.
PORROT EGIN.- Huts egin. Fracasas, fallar.
LEHENTASUN.- Preferencia.
ARABERA.- De acuerdo a, según.
EGONEZIN.- Urduritasuna,

larritasuna. Nerviosismo, inquietud.
SAIHESTU.- Itzuri. Evitar.
GRINA.- Irrika. Pasión, vicio.
HITZARMEN.- Akordioa. Contrato.
SINATU.- Izenpetu. Firmar.
BITAN.- Bi aldiz edo bider.
ERATORRI.- Derivado.
MAKULU.- Muleta.

BANATZE HUTSA.- Banatzea soilik. El mero reparto.
JARRAI PEN.- Jarrai(tu)+pen. Segimendua. Seguimiento.
TXOSTEN.- Informe.
BIHARAMUN.- Hurrengo eguna. Día siguiente.
KONTURATU.- Ohartu. Darse cuenta.
IRITSI.- Heldu. Llegar.
SAIO.- Ahalegina. Esfuerzo,

2

- 1.- Zein da *Ferrari* auto ezagunen kolore ofiziala?
 - A. Berdea
 - B. Beltza
 - C. Gorria
- 2.- Lagun batek azken oporraldian Mafian izan dela esaten badizu, ezer txarrik pentsatzen **hasi aurretik** jakin ezazu Mafia zera dela:
 - A. Costa Ricako **herriska**
 - B. Tantzaniako **uhartea**
 - C. Maltako mendia
3. Aristotelentzat *timokrazia* erregimen ideala zen. Zer ote zen, **alabaina, delako** *timokrazia* hori?
 - A. Aristokrata apalen agintea
 - B. **Iruzurgile** damutuen agintea
 - C. Aristokraziaren eta demokraziaren arteko erregimena
- 4.- Zenbat **zutabe** ditu Partenoneko aurreko aldeak?
 - A. 6
 - B. 8
 - C. 10
- 5.- Lagunei *lempira* izeneko dirua erakusten badiezu, gutxiak jakingo dute non **eman** dituzun oporrak. Zuk, ordea, ongi dakizu *lempira* hori nongoa den...
 - A. Honduraskoa
 - B. Mozanbikekoa
 - C. Ukraniakoa
- 6.- Gure sisteman, zein da Eguzkitik hurbilen aurkitzen den planeta (58 milioi Km)?
 - A. Lurra
 - B. Marte
 - C. Merkurio
- 7.- Leonardo da Vinciren Gioconda **ospetsuak** non du eskuineko eskua?
 - A. Ezkerraren gainean
 - B. Ezkerraren azpian
 - C. Poltsikoan
- 8.- *Bisinosis* hitza aditzean, zer datorkigu gogora?
 - A. Arnas aparatuen gaixotasuna
 - B. **Iharduera** sexual berezia
 - C. Goi exekutiboan gaixotasuna
- 9.- Jacques Piccard suitzarrak berak eginiko batiskafoan munduko itsas hondo **sakonenera** iritsi zen 1960an: Marianetako **Hobia**, Ozeano Barean. Zenbat metro sakon da hobi hori?
 - A. 17.534 m
 - B. 15.527 m
 - C. 11.263 m
- 10.- Nork idatzi zuen *Karamazov anaiak* **eleberria**?
 - A. Feodor M. Dostoievski
 - B. Leon Tostoi
 - C. Ivan F. Tolstoievski
- 11.- **Aitonen seme** batekin harremanetan sartzan bazara, kontu handiz ibili behar, **zeren eta** protokoloa beti ere protokolo baita. Ariketa praktikoa: jar itzazu noble hauek dagokien lekuan (apalenetik goikoenetara).
 - A. Konde / Bizkonde / Markes
 - B. Markesa / Bizkonde / Konde
 - C. Bizkonde / Konde / Markes
- 12.- Zein da antzinako Siam **erresumaren** gaurko izena?
 - A. Tailandia
 - B. Iran
 - C. Laos

HASI AURRETIK.- Hasi baino lehen. Antes de comenzar.
HERRISKA.- Herri txikia.
UHARTE.- Irla. Isla.
ZER OTE ZEN?.- ¿Qué debió ser, qué sería?
ALABAINA.- Hala ere, baina. Sin embargo.
DELAKO.- El llamado.
IRUZURGILE.- Iruzurra edo tranpa egiten duena. Defraudador/a.
ZUTABE.- Zutaina, zutarria. Columna.

EMAN.- Iragan, igaro. Pasar.
OSPETSU.- Famatua, entzutetsua.
IHARDUERA.- Actividad.
SAKON.- Profundo.
HOBIA.- Fosa.
ELEBERRI.- Nobela.
AITONEN SEME.- Haundizkia. Noble, hidalgo.
ZEREN ETA.- Porque.
ERRESUMA.- Reino.

13.- Zenbat **zakatz** du **izurdeak**?

- A. 1
- B. 2
- C. 3

14.- Nork aurkitu zuen tuberkulosiaren baziloa?

- A. Alexander Fleming
- B. Robert Koch
- C. Louis Pasteur

15.- Nola amaitzen da esaera zahar hau: **Putza**
ere izan ez ta puzkerra dela...

- A. gainera
- B. uste
- C. latza

16.- Ondoko metalen artean zein da elektrizitate
eroalerik onena?

- A. Zilarra
- B. Kobrea
- C. Aluminioa

17.- Zer neurtzen du *eklimetroak*?

- A. Eklipseen **ezaugarriak**
- B. Mendien inklinazioa
- C. **Isurkaiei** dentsitatea

18.- Zein da airea **biriketara** bideratzen duen
organoa?

- A. **Hestegorria**
- B. Laringea
- C. Trakea

19.- *Impromptu* hitza irakurtzean zer ulertu behar
dugu?

- A. Bat-batean asmatutako musika
- B. Emakumeenganako gehiegizko zaletasuna
- C. Gizonezkoenganako gehiegizko
zaletasuna

20.- «Ez da erraza bonbila elektriko batekin
ezkondua izatea» esan zuen behin Joe di
Maggio gaizoak, baina noren senarra zen
gizaseme hori?

- A. Sofia Loren
- B. Marilyn Monroe
- C. Brigitte Bardot

SOLUZIOAK
46. ORRIALDEAN



ZAKATZ.- Agalla, branquia.

IZURDE.- Delfín.

PUTZ.- Soinurik gabeko puzkerra. Pedo sin ruido.

EROALE.- Eramalea. Portador.

EZAUGARRI.- Berezitasuna. Característica.

ISURKAI.- Líquido.

BIRIKA.- Pulmón.

HESTEGORRI.- Esófago.

IZOKIN EUSKALDUN BATEN ISTORIA

2 Aurtengo Nafarroa Oinezen abesti ofiziala Negu Gorriak taldeak sortu du. Letra Fermin Muguruzak eta Joxan Oizek egin dute. Koroan, berriz, Labiaga ikastolako zenbait ikasle-irakasle, guraso eta aitatxik hartu dute esku. Euskararen aldeko festa honen leloa «Bideosoan» da.

Hementxe daukazue
istorio ederra,
Bidasoako izokin
euskaldun batena.

Erabat garbia zen
sorlekuko erreka,
igeri egiteko
trabarik ez zuena.

Uretatik txirristan
badoa itsasaldera.
Ume gazte eta zaharrek
dute hizkuntza bera;
Euskaraz agurtzen dute
Baztan, Lesaka (e)ta Beran
Irun eta Hendaian
ere akaberan.

GOITI GOITI BIDASOAN BIDEOSOAN
GOITI GOITI IZOKINA BEZALA
GOITI GOITI BIDASOAN BIDEOSOAN
GOITI GOITI EUSKARA EUSKAL HERRIAN

Itsasoan eta munduan
bere **solasaren** jabe.
Denek **onartu** zuten
arazorik gabe.
Aunitz maitatua izan zen
eta inon ez **mirabe**.
baina saltoka itzultzeko
tenorea du oharkabe.

GOITI GOITI BIDASOAN BIDEOSOAN...

Ibaiak baditu urak nahasiak,
ez ditu ulertzen ertzetako hizkuntzak.
Zer gertatzen den galdetu arrainak,
irri egin dio inguruko jendetzak.
Errekan barrena hasi dira jauziak;
halere euskaldunak dira(de) urriak.
Izokinak bezala oztopo eta trabak,
euskaldunok ere goiti, (e)ta beti aintzina!



IZOKIN.- Salmón.
AITATXI.- Aitona, aitiba. Era
berean: amona, amaxi, amama.
ESKU HARTU.- Parte hartu.
Participar.
LELO.- Estribillo.
ERABAT.- Guztiz, zeharo.
Totalmente.

SORLEKU.- Jaiolekua, iturria.
Origen, manantial.
ERREKA.- Ibai txikia. Riachuelo.
IGERI EGIN.- Nadar.
SOLAS.- Hitza, ahotsa.
ONARTU.- Onfzat eman. Aceptar.
AUNITZ.- Hagitz, oso.
MIRABE.- Criada/o, sirvienta/e

TENORE.- Garaia, sasoia,
denbora.
OHARKABE.- Konturatu gabe. Sin
darse cuenta.


9 urte gutxiago bizi izaten dira EZKERRAK AZKAR HILTZEN

3 Eskuinen gizartean **ezkerrak** baztertuak bizi dira oraindik. Orain ez zaie **otorduetan** ezkerreko eskua atzean lotzen, eskolan ez dituzte eskuinaz idaztera behartzen, baina gizartea eskuinen arabera moldatua dago lehen bezala. Tresneria: guraizeak, kotxeak, erlojuak, sukaldeko ontziak, ikasleen mahaiak, argazki-makinak, gantzontziloak... den-dena eskuinentzat sortua da. Ezkerrak nahikoa lan izango du tresna horietaz **baliatzen**. Ezbeharrak ere ekarriko dizkio agian: lan-istripu gehiago izaten ditu ezkerrak, eta kotxean ere arrisku handiagoa du. **Ikerketa** baten arabera, 9 urte gutxiago bizi izaten dira ezkertiak. Baina ezin den-dena txarra izan. Batzuek diote ezkerrak bizkorragoak direla. **Oztopo** gehiago ditu aurrera egiteko eta **trabak** gaindituz **zaildu** egiten da ume-umetatik.

Ezkerra hizkuntzarik gehienetan izan da baztertua, gaizki ikusia. Hiztegieta jotzea besterik ez dago. Eskuina ona da; ezkerra, berriz, gaiztoa, okerra. Placido Mugikaren hiztegiara jo eta hona zer aurkitu dugun. **Sasikoa** esateko balio du ezker hitzak, baita **muturbeltza** adierazteko ere. Ezkerretik jaiki da esaldiak ezbeharra gertatu zaiola esan nahi du, edo zorritxarra berekin duela. Ezkerreko begiz begiratzea, berriz, gorrotoz begiratzea da...

Ezkerra jaio

Ezkerra joera horrekin jaiotzen da. Hamarretik bat edo izaten da ezker jaiotzean. Ez dute, beraz, **gaiztoz** aukeratzen edo deabruak hala aginduta, garai batean uste bezala. Zientziak oraindik ez daki zehatz-mehatz zergatik jaiotzen diren ezkertak. Badirudi umekiak uteroan daukan hormona-



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ESKUIN.- Eskuinaldeko gorputz-atalaz baliatzeko joera duena.

EZKER.- Ezkerraldeko gorputz-atalak erabiltzeko joera duena.

OTORDU.- Janaldi bakoitza.

BALIATU.- Erabili.

IKERKETA.- Investigación.

OZTOPO.- Traba, eragozpena.

TRABA.- Oztopo, eragozpena.

ZAILDU.- Curtirse.

SASIKO.- Sasikume. Garai batean ezkontzaz kanpora jaiotako umeari esaten zitzaion.

MUTURBELTZ.- Zaputza. Besteekin inolako hartuemanik izan nahi ez duena.

GAIZTOZ.- Txarkeriaz. Con mala intención.



Eskuinak ezkerrez idazten duenean orduantxe konturatzen da ez dela txantxetakoa eskua aldatzea.

-mailarekin zerikusia baduela. Hormona horiek **burmuinaren** alderdi bat bestea baino biziagoa sortzen laguntzen dute. Eskuinek burmuinaren ezker aldekoa erabiltzeko joera dute; ezkerrekoa, berriz, eskuinekoa.

Umetatik, pentsamendua sortzen hasten denetik, ezkerreko eskua eta hanka izango ditu gustukoenak, eta horien bidez **egituratuko** du pentsamendua. Burmuinaren eskuinaldea erabiliaren erabiliz landu egiten da eta gehiago hazi. Heldutakoan, eskuinaren eta ezkerrearen burmuinek pisu antzekoa dute. Eskuinaren burmuinean, ordea, ezkerreko aldeak pisu handiagoa du eskuineko alderdiak baino. Ezkertien burmuinean, berriz, bi alderdiek antzeko pisua dute. Froga garbiagorik?

Hezkuntzaren eragin gaiztoa

Baina gauza horiek ez zekizkiten garai bateko guraso eta maisu-maistrek. Ume guztiak berdin hezi behar ziren, eskuin izateko, jakina! Izan ere, gehiengo horrelakoxea zen. Ezkerra eskuineko eskuaz idaztera behartzea zuzena zen. Ohiturak aldatzea besterik ez zen. Bestelako ondorioz ez zuen horrek. Izan du, ordea, eragin gaiztorik. Zenbat eta zenbat

heldu dislexiko ote dago bazterretan irakurtzen eta idazten behar bezala ikasi ez duena? **Totelka** aritzeak ere ba omen du zerikusirik aldaketa horrekin. Eskua eskuina eta hanka ezker duenik ere badago, eta **eskubikoitzik** ere bai, biek in moldatzen dena alegia. Arazo fisikorik ere ekarri izan du. Mertxeri —45 urteko emakumea bera— sendagileek behin baino gehiagotan esan diote bizkarreko mina horretxek sortu ziola, ezkerria izan eta eskuinaldea behartu izanaki.

Ezkertien burmuina ez dago eskuinena bezala eratua

Zorionez, azken hogeitaz urteotan gauzak asko aldatu dira eskoletan. Maisu-maistrek ez dute gaur egun ezkerria eskuin bihurtzen. Ez pentsa, ordea, ezkertien arazoak goizetik gauera bukatu direnik. Gizarteak onartzen die berdinak ez izateko eskubidea. Ez die, hala ere, **baliabide** egokiturik eskura jartzen. Eskuinen tresneria eta ohituretara moldatu behar dute nahitaez: eskuinen guraizeak, eskuinen erlojuak —ordua aldatzekoa eskuinean—, eskuinen kotxeak —marxak aldatzekoa eskuinean—, eskuinen sukaldeko

eltzeak eta poteak irekitzekoak eta eskuinen gantzontziloak (?). Ikusi al duzue inoiz gizonezko ezkertia piza egiten. Gauza barregarriagorik! Galtzetako botoiak nola edo hala askatuko ditu —hor ere arazoak—, gantzontziloen zuloa bilatu behar duenean, ordea, hori komeriak, zuloa eskuin aldera egoten baita. Unibertsitatean ere berehala antzematen zaio ezkerriari. Idazteko **oholtxo** eskuinaldean erantsita daukaten aulkian eseritzen bada, **jai dauka**. Gorputza eskuinaldera okertuta idatzi beharko du, besoa non jarri ez duela. Letra ulergarria eskatuko diote gero. Behin selektibitateko azterketan era horretako mahaietan jarri zituzten marrazten. Ezkerrek kexuka hasi ziren, jakina!

Enpresei ez zaie bururatu ezkerrentzat produktu bereziak sortzea

Askotan tresna egokitua erosi nahi eta ezin aurkitu, ez guraize berezirik, ez kotxe berezirik, ez gantzontzilo berezirik. Kontsumoko gizartearen enpresak lehian badabiltza ere, ez zaie bururatu talde handi honentzat produktuak eskaintzerik. Ahaztuta ditzute.

Osasunerako kaltegarria

Traba trabaren gainetik aurkitzen dute, beraz, ezkertiek bere eguneroko bizimoduan. Eta horrek badu eragina **bizi-iraupenean**. Duela hiru urte ikerketa-lan polita argitaratu zen The New England Journal of Medicine aldizkarian. Ikerketa horren arabera, ezkerrek lanean eta trafikoa istripu gehiago edukitzeko arriskua dute, eskuinek **halako sei**. Eta arriskua ez dator ezkerria izateagatik. Arrazoiak bestelakoak dira: batetik, teknika haiei egokitua ez dagoelako; bestetik, hezkuntza okerrak kalte egin dielako. Adibidez,

BURMUINA.- Muina. Cerebro, sesos.
EGITURATU.- Estructurar.

TOTELKA ARITU.- Tartamudear.
ESKUBIKOITZ.- Bi eskuez berdintsu baliatzen dakiena.
BALIABIDE.- Recurso.

OHOLTZO.- Ohol txikia.
JAI DAUKA.- Lo tiene crudo.
BIZI-IRAUPEN.- Bizirik irauten dituen urteak.
HALAKO SEI.- Seis veces más.

eskubikoitzek arrisku-egoeretan motelago erantzuten dute, zein esku erabili erabaki behar dutelako edo.

Dislexikoak, totelak, eskubikoitzak... garai bateko heziketaren ondorio

Lan horretan bada bestelako datu harrigarriak ere. Gazteen artean, 20 eta 29 urtekoen taldean, %13a da ezker. Zaharretan, berriz, izugarri **murritz**u dira. 80 urtetik gorakoen artean %1a besterik ez da ezker. Zergatik? Besteak beste, gehienak hilda daudelako. Bizitza-itxaropena eskuinena baino 9 urte txikiagoa da. Eskuinak batz best 75 urterekin hiltzen badira, ezkerak 66 urterekin. Diane Halpern eta Stanley Coren ikerketaren egileek immunologi arazoak ere eskuinek baino gehiago izaten dituztela aipatzen dute. Ez da, beraz, txantxetako gaia hau.



Ezkerrek guraizeekin ere arazoak izaten dituzte. Ezin behar bezala erabili.

Diane Halpern ikertzaileak, dena den, ezkertien lasaitasunerako, aurkitu die alde onik. Hezkuntza egokiarekin, beren joerari trabarik jarri gabe,

ezkerak **eskuintiak** bezain bizkorak izango dira. Eta, bestalde, eskuinak baino zailduagoak haziko dira, ez baitute bide errazetik jotzerik izan.

EZKER EZAGUNAK

Trabak traba, zenbait ezkerrek lortu dute aurrera egitea eta beren lanbidean ospetsu bihurtzea. Agian ezagunena Leonardo Da Vinci izango da. Marraskilari, eskultore, arkitekto, ingeniari eta abar izan zen gizon hau ezkerria izan zen, eta ez zituen beti eskuinen arauak bete. Ba omen ditu zenbait idazlan eskuinetik ezkerreara idatzitakoak. Ispilua behar, hortaz, idazlan horiek irakurtzeko. Rafael margolari eta arkitektoa ere ezkerria zela diote. Musika-arloan Robert Schumann aurkituko dugu. Zientzi eta teknika-arloan, berriz, Benjamin Franklin.

Zaila da oso zerrenda osatzen, garai batean gehienek gorde egiten baitzuten beren joera. Gaur egun errazago onartzen zaie. Bill Clintonek, adibidez, ez du jendaurrean izkutatu. Kamaren aurrean lasai-lasai izenpetuko ditu ezkerrez nazioartean izugarrizko eragina duten **hitzarmenak**. Zertan lotsaturik ez dauka horregatik.

Eta kirolean? Arlo horretan ezkerrek abantailak izaten dituzte eskuinekin alderatuz. Futbolearen, tenisean, saskibaloian, pilotan eta ezker mordoska daude: Maradona, Alkiza, Hugo Sánchez, John MacEnroe, Martina Navratilova, eta Unanue, Salaberria, Iturzaeta eta Otero pilotariak... Lankide batek Julian Retegi pilotaria ere zerrendan sartzeko esan digu, eskuina bada ere ezkerria ezin trebeagoa baitu.

MURRIZTU. - Gutxiagotu, bakandu.

ESKUINTI. - Eskuina. Eskuinaldeko gorputz-atalak erabiltzeko joera duena.

HITZARMEN. - Pacto, tratado, convenio.

TESTAMENTUA

3 Behin baino gehiagotan entzun izan genion Martzelino difuntuari, Tolosako euskara dotorean: «semea ondo utziko bada, aittak ipernura joan behar». Gizon handia zen. Bere **sasoirik** onenean bi **porlan-zaku aise** jasotzen omen zituen, **kerarik** egin gabe, seigarren pisura. Baserrian **zailduta** zetorren obrara. Nagusiak estimatu edukitzen zuen. Baina lanerako. Inoiz ez zion proposatu enkargatutza eta egiteko. Horretarako nahikoa zuen edozein atzeurri edo eskutxuri, Biosolako Inazio adibidez.


Jaten **bazizun** gastu pixka bat, baina edanetik beti neurrian. Jokorako zuen zeukan bizio-apurra. Apenas, ordea, etxea hondatzeorik inoiz jokatzeko zuten. Larunbat iluntzean zintzo erretiratuko **zitzazun** Altzoko jaiotetxera. Bere **kargu** izaten ziren igandeko **ganajatekoak**. Goizeko meza entzun eta han joango zen sorora, **lepasaskia** burutik eta asto beltza aurrean zuela. **Pagotx**-garaian pagotxa; **arbia** zenean, arbia; eta **malporta** bazen, **malporta** garraiatzera. Gastatzekoa baino gehiago zen egitekkoa.

Semeengatik ez zuen ifernura joan beharko Martzelinok, Ezkontzako Sakramentua hartzeko grazia ez baitzuen izan. Hala eta guztiz, hamabi seme-alaba **hazi** behar izan balitu baino gogorrago pasa zuen bizitza, lanean eta negoziotan. Soldaduskatik lizentziatu eta berehalaxe kontratista hasi zen. Epoka ona egokitu, **nonbait**, eta etxea **franko** egin zuen Tolosa alde horretan. Ur-aparra bezala ikusten zuen dirua. Bien bitartean, Biosolako Inazio, masa **xixtrin** bat egiteko ere denborak behar izaten zituen, inbiritan **urtzen**. Andrea eta lau seme-alabak arrastaka bizi ziren, egiten zituzten zuloak baserritik ateratzen zuten apurrarekin estali ezinik. Inazio, hobe Inaxio, zigarroa eta basoerdia beste konturik ez zuela jarri zen azkenerako.

Martzelinok baserria erosi zienean lasaitu ziren apur bat. Hala ere, Tolosan kaletxea erosteko aina ez zuten juntatu. Diruak eskura, seme zaharrenarentzat lantegia eta etxea errentan eman zien Martzelinok. Honek, terrenoak itxi eta behiak eta **behorrak larreratu** zituen Biosolan. Etxeak saldu eta baserriak erosi ari zen Martzelino. Geuk dakizkigunak hiru badira behintzat: lehen esan dugun Biosola hori, azken urteetan bera jasotze **aldera** Altzoko iloba Joxe Galarragari utzita zeukana, Leaburuko Olaetxea eta Amezketako Errotazpi.

Jubilatu zenean, ba, Biosolara erretiratu zen. Hogei urte luzez hantxe izan zituen eguneroko **anoia** eta ohe zuria, batere ordaindu beharrik gabe. Badakigu etxea berea zuela, baina mantenua esan nahi genuen. Nahi zuenean ferira eta bestela soziedadean musean, ez zegoen hala bizi zenik ingurumari haietan.

Edadeak ez barkatzen **solamente**, eta gaiso jarri zen Martzelino. Poliklinikara eraman zuen ilobak. Ez dakigu ifernuarena serio hartu edo, arimaren negozioek ohi baino estuago hartu zuten gizona. **Kapeilauari** deitzeko esan zion **erizainari**. Informeak ondo hartuta joan zen don Moniko. Gizon txikia zen. **Betondo** sartuak, sudur txato samarra eta ilea **trikuaren** arantzak bezain zorrotza. Sotanarekin ibiltzen zen beti. Euskaraz esplikatzeke zaila da, baina batzuek txiste errazak



SASOI.- Garaia. Epoca.

PORLAN-ZAKU.- Saco de cemento.

AISE.- Erraz. Fácilmente.

KERA.- Geldiunea, pausartea. Pausa.

ZAILDU.- Gogortu. Endurecer, curtir.

BAZIZUN.- Bazuen (zukako alokutiboa)

ZITZAIZUN.- Zen (zukako alokutiboa).

BERE KARGU.- Bere gain, bere kontura.

GANAJATEKO.- Ganaduei jaten emateko egin ohi den lana.

LEPASASKI.- Lepotarra, bizkar gainean eramaten den

saski handia.

PAGOTXA.- Belar-mota bat. Trébol encarnado.

ARBI.- Nabo.

MALPORTA.- Tepla. Trébol silvestre.

HAZI.- Hezi. Criar, educar.

NONBAIT.- Dirudienez, antza.

FRANKO.- Dezente, asko.

XIXTRIN.- Txastarra, txikia, munta gutxikoa.

URTU.- Derretir.

BEHOR.- Yegua.

LARRERATU.- Larre+ra+tu. Larrera eraman, bazkatzera

egiten zituzten don Monikoren kontura. Don «Mónico» esan orde, azentua kendu, eta don «Monico» esaten zioten. Don «morico» eta don «borrico»k ere ongi errimatzen zuten batzurentzat.

Egunean hiruzpalau bider bisitatzen zuen don Monikok. Beste gaisoen konfesatzeko desioari **jaramonik egiteke**, zuzenean joaten zen 414. gelara. Han, Martzelinoren **arimako** negozioez eta beste batzuek arduratzen zen.

- Ipernua, iper...- entzun genuen behin. Erantzuna ere berehala iritsi zen:

- Lasai, Martzelino! Lasai! Ez dio axola bide txarretik eginak izanda ere; gero nola jokatzeko duzun da kontua, beti dago bekatutik libratzeko modurik. Hiru etxe dituzu, Martzelino. Hiru! Utzi hirurak Elizari eta zure arima zuzenean joango da Aita Eternoaren **altzora**.

- Iloba, ilob...

- Zer iloba eta zer otxokoarto! Jan dezala berak egindakotik.

- Zortzi ume, zortz...

- Ez apuratu. Zortzi ume izateko Garizuman ere ez dago **barau egiterik**, eta Garizuman ere barau egiten ez duenak ez du inoren errukirik merezi.

- Laguntza, laguntz...

- Lagundu? Tira, tira, Martzelino! Zuregatik ibili delakoan, ala? Noiz hilko **amorratzen dago** eta. Beno, Martzelino. Eskribau jauna duzu hau.

Martzelino agonian sartu da. Don Moniko berak esan eta berak erantzun ari da. **Burko** azpian eskua sartu eta baietzaren edo ezetzaren sinua, segun zer komeni zaion, egin erazten dio Martzelinoren buruari.

- ¿Desea legar todos sus bienes a don Mónico Mendiaraz...?- eta Martzelinoren burua baietzeari astintzen du don Monikok.

- ¿Desea nombrar algún otro heredero?- Oraingoan ezetzean mugi erazten dio burua. Eta eskribaua: «Ante mí, escribano del Ilre. Colegio de...» eginez hasten da aiudanteari diktatzen. Eta gero: «Doy fe...» Eta azkenik: «Firmo y rubrico en San Sebastian a...»

Joxe Galarraga sartzen da klinikan. Osaba **gorpu** dago. Zerik jakin gabe antolatu ditu hileta-elizkizunak. Handik hamabost egunetara hasten da pastel **mingotsa** jaten. Eskribauaren karta hartzen du lehenik. Goarda zibilek bisitatzen dute segidan. Sei hilabeteko plazua du baserria **husteko**. Abogaduetara jotzen du, baina ez diote aurrerabide handirik ematen. Zeru Txiki tabernan sartu da salda berroz **etsipena** itotzera. Han norekin topo egingo eta don Moniko berberarekin.

- Egin duzuna ongi iruditzen bazaizu, ni ez nauzu gehiago elizan ikusiko- esaten dio Joxe Galarragak.

- Hor konpon. Nik ez daukat kontzientziako kargarik- don Monikok.

- Kontzientzia behar halakoa, kargaturik jasotzen ez duena- izan zen Joxeren erantzuna, eta Artzabaltzako paper fabrikara jo zuen lan eske.

Rufino Iraola

eraman. Era berean: etxeratu, kaleratu, herriratu...

ALDERA.- Truke. A cambio de.

ANOI.- Jatekoa, mantenua.

SOLAMENTE.- Sólo que.

KAPEILAU.- Capellán.

ERIZAIN.- Eri+zain. Gaixoak zaintzen dituen. Enfermero/a. Era berean: etxezain, basozain, atezain...

BETONDO.- Begi-ondoa, begi-ingurua.

TRIKU.- Kirikinoa. Erizo.

JARAMONIK EGITEKE.- Kasurik egin gabe.

ARIMA.- Alma, espíritu.

ALTZO.- Magala. Regazo, seno.

BARAU EGIN.- Ayunar.

AMORRATZEN EGON.- Biziki desiratzen egon. Rabiari por.

BURKO.- Burukia. Almohada.

GORPU.- Hilotza. Cadáver.

MINGOTS.- Mikatza. Aurkakoa: gozoa, ezta.

HUSTU.- Vaciar.

ETSIPEN.- Etsi+pen. Desesperación. Era berean: luzapen, argitalpen, oroitzapen...

HITZ GEZIDUNAK

				*Izena	↓	Eguzki	↓	Euritako	↓	Tuterako	↓
				Bizitzeko gaiak hartua		1993an		Arrainek iresten dutena		autoetan	
				→		↓		↓		↓	
				Zerbait egiteko eskubide	→						Ez astuna
				IVA	→			H ₂ O	→	Bokala	→
								Zuzenda- riarena		Matxura	↓
Kontuak arazoak	↓	Umea	↓	Roentgen	→	Kiderik ez du	→				
Autoa gi- datzekoa		Gauero egin behar		Holandako ibilgai- luetan		Etzanda					
→		↓		↓		↓		Ibai igaro- bide	→		
								Bitamina			
Karabana (frantse- sezko hitza)	→							↓	Enbor hasieran	→	
Dago									Bizilekuak egonlekuak		
→		Kontso- nantea	→	Barazki mota	Izenordina	→		Modua	→	↓	
				Ospitale	Suediako autoetan			Behatzeko apaingarri			
*Deitura	→	↓		↓	↓			↓			Ugaztun exotiko polita. (Pl.)
Bada											
→					Ugariak, joriak	→					↓
					Eguraldi						
Hor haizen hori	→	... danean, dirudienez		A	G	I	Oinazea adierazteko	→		Ustekabea adierazteko	→
Astia		Bokala					Gurasoe- tariko bat			Bizkaiko herria	
→		↓		Ikatz bihurtzea	→		↓			↓	
				Oxigenoa							
Musika nota	→	Ipar., zakur	→	↓		Gune ilun	→				
Utzi		Galderetan				Odolean dugu (edo ez dugu)					
→		↓		Bizk., baratza	→	↓				Lehena	→
				Borobila						Austriako autoetan	
1.000 gramo	→			↓	Induraine- nak, bere sailean onenak	→				↓	

POEMA PRESOA

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara –adibidean bezalaxe– eta Bitoriano Gandiaga poetaren olerki baten zenbait lerro aurkituko dituzu.

Ez militarra eta ez erlijiosoa

Uraza

Ura, ardoa, garagardoa...

Zangoker

Isekak

Bizkaiko zaindaria

Biguindu

Urde

Kolore eskaseko

Ate ingurua

Gauzak garraiatzeko animalia

Tematsu, setati

Zikiratu

Zuhurtasun

Joan den urtekoa

Zikindu, lokaztu

Jarraitu beharrekoa

Eguratseko hezetasun

Gai gogorra

Z				L	A
	E		X	U	
E	D	A			A
H		R	R	E	
		R		A	K
B				Ñ	A
B		R	A		U
T			R	R	
Z	U	R	B	I	L
A					A
Z	A			R	
			A	T	
I	R	E			
Z					U
I		Z			A
L			I	T	U
	R	E		U	
I	H	I			
H		R			A

JEROGLIFIKOA

DA
DA


Zer egin duzu diruarekin?

LETRA-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

A	L	E	M	I	Z	T	U	K	E
R	N	U	I	A	R	E	M	I	T
G	E	M	O	Z	K	O	R	L	E
I	S	Z	P	B	Z	U	M	I	B
O	K	A	A	O	X	E	A	O	I
N	A	R	L	T	S	I	L	E	N
T	T	O	A	K	O	P	K	J	A
Z	X	R	K	U	R	A	O	I	G
I	A	T	S	L	A	U	R	L	A
B	T	R	E	R	R	E	G	E	O

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16													
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56																		



KRYSZTOF KIESLOWSKI, POLONIATIK DONOSTIARATU ZEN LAGUNA

3 Donostiako Zinemaldiak bizi izan zuen **unerik** bikainena izan zen. Izana zen gurean, 1989 urtean, «La doble vida de Verónica» zuzendu zuen hura, baina 1994 honetako bisitaldia askozez garrantzitsuagoa zela **sumatu** genuen. **Zurrumurruak** izan dira. Esan, esan ziguten zinemagintzari utziko ziola «Azul», «Blanco» eta «Rojo» sortu zituen maisuak. Eta guk sinistu nahi ez. Eta gu sinistu ezinean. Horrexegatik behar genuen geure artean. Egia zen galdetzeko. Eta galdetu genion. Eta baietz eta ezetz erantzun zigun, baina guk badakigu, peskixan ibili garelako, lanean diharduela **oraindaino**. Hala bedi.

Fellini, Bergman eta Allenen parean jartzen dute zinemaren jakintsu ia guztiek. Ametsak ditu lagun eta **patua**, gure arimaren izkinetan zain eta **atezuan** dugun sinu edo halabeharra, **kide**. Muntaketa du arma

gorahandikoa. Baita **lokamutsik** ilunena ere. Zinearen kondairak dioenez, 17 bertsio egin zituen «La doble vida de Verónica»ren inguruan. **Alde** txikia zen guztien artean, baina berak hamazazpiak

estrenatu nahi izan zituen Pariseko 17 aretotan.

Patua kide eta kezka duenez, zaila, oso zaila zaio berak sorturiko gizalagun zeluloidezkoei edonolako ezinbestea ezartzea. Badakizue zergatik? Berak



UNE.- Momento.
SUMATU.- Nabaritu. Notar, percibir.
ZURRUMURRU.- Esamesa. Rumor.
ORAINDAINO.- Orain arte.
PATU.- Halabeharra, zoria. Destino.
ATEZU.- Tirantez, tensión.
KIDE.- Laguna.

LOKAMUTS.- Amesgaiztoa.
Pesadilla.
ALDE.- Diferentzia.



esanda: Guztirako ez dut erantzunik. Dozenaka ditut nik erantzunik gabeko galderak. Bai gizakia naizen neurrian. Bai **sortzailea** edo naizen neurrian. Bai artisaua naizen heinean. Duda-mudatan nabii etengabe. Horrexegatik artista baino artisaua naizela diot. Kreatzailea denak errespustak aurkitzen ditu. Eskulangilearen jakinduria, eta ofizioa, berriz, ogibidearen **mugarrietan** geratzen da. Nik mikrofonoa nola dabilen jakin badakit, baina zergatik, zertarako, nola bizi garen ez dut ideiarik, **zin dagizut**. Fellinik bazekien. Baita Dreyerrek ere. Eta Shakespearek...».

«Azul», «Bleu», «Blau». Urdiña. Hizkuntza guztietan kolore bera eta zinema-min berdina. Esan,




SORTZAILE.- Sor(tu)+tzaile. Creador/a. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: garbitzaile, saltzaile, laguntzaile...
MUGARRI.- Mojón, límite.
ZIN DAGIZUT.- Zin egiten dizut. Te juro.

badiote «Azul»ek askatasuna duela mintzabide. Agian bai. **APIKA** ez. Baina ez du inportik. «Bleu»k bizitza du ardura. Maitasuna kuttun. Musika **adierazbide**. Paris **aterpe**, Juliette Binoche bandera. Zeluloidea **sehaska** eta **hilobi** ederra. «Blau»k Europa osoa utzi zuen minduta, dardar epelaz, zorabiatutik.

«Blanc». «Blanco». «White». «Weisa». Zuria. Berrito margo-nabardura bera **mintzaira** guztietan, baina jada ez gaude Paris ederrean maitasun eta askatasunaren **doluz** eta egarriz. Poloniara itzuli gara Poloniatik alde eginga zen zinegile **ezkor** horren besotik. Eta han, dagoeneko, elurra ez da guk amestu egin genuen bezain zuria. Bizibeharrak zikindu du. Odolez

eta tristuraz. Kieslowskik ederki **usnatu** du noraezean dabilen herri **txiro** horren iluntasun argia eta, gure aurpegiaren ispilua balitz bezala, begien aurrean, jartzen digu.

«Rouge». «Rojo». «Red». «Rot». Azkenengo aldiz, koloreak **berban**. Josia da jadanik hiru koloreko bandera zeluloidezkoa. Hiruretan klasikoena da itxuraz eta teknikaz, baina **matxinadarako** deia egiten digu **gizabanako** den-denei. Abisua pasa digu Krzystofek. Bihotzaren **uzpeletan** bada gure bizitza astindu eta **aztoratzen** duen zer edo zer. Zinema egiteari uko egiten ez badio, Kieslowskirekin batera egongo **gara beti zelatan**.



Kieslowski honela mintzo da askotan:


«Filmea jokoa **baino** ez da. Hasieratik bukaeraraino jokoan gaude ikuslea eta biok».

«Bai, jakina. Filme bera, filme bakarra, filme bat ari naiz egiten zinemagintzan hasi nintzenetik. Egileak diren guztiek hortantxe iharduten dute, kontu berdinen inguruan saltoka, gainean, aldean, kontra. Badakit zinemako langile **profesionalek** hori egiten ez dutela baina ni **egileez** ari natzaizu».

Begoña del Teso



APIKA.- Agian, beharbada, akaso.
ADIERAZBIDE.- Medio de expresión.
SEHASKA.- Kuma. Cuna.
HILOBI.- Sepultura. Tumba.
MINTZAIRA.- Hizkuntza. Idioma.
DOLU.- Duelo, luto.
EZKOR.- Pesimista. Aurkakoa: baikorra.

USNATU.- Usaitu. Oler, olfatear.
TXIRO.- Behartsua. Pobre.
BERBA.- Hizketa.
MATXINADA.- Revuelta.
GIZABANAKO.- Individuo.
UZPEL.- Leku laiotza, itzaltsua. Umbría, lugar sombrío.
AZTORATU.- Akuitatu. Alentar.
ZELATAN EGON.- Vigilar, acechar.
BAINO.- Baizik, besterik.



IRTENBIDE.- Solución.

APARTATU.- Banatu, bereizi.
Separar.



ILAR.- Guisante.

BARAZKI.- Ortuaria. Verdura.



IZOZKAILU.- Frigorífico.
ARKUME.- Bildotsa, axuria.
Cordero.

IZTAR.- Pierna, muslo.
MANEATU.- Atondu, prestatu.
Preparar.
ALDE.- Diferentzia



ZERRALDO.- Hilotza. Cadáver.
HONEZ GERO.- Para ahora.

NIREKIKO.- Nire ustez. A mi
parecer.

JEROGLIFIKOA

DA
DA

Soluzioa: Bi DA ia
Bidaia

POEMA PRESOA

(Mikel Zarate)

Ibiltarien bulego,
etxe ibiltari,
maiteminduentzako
ohe dantzari

ERANTZUNAK:


1.C / 2.B / 3.C / 4.B / 5.A / 6.C / 7.A
/ 8.A / 9.C / 10.A / 11.C / 12.A /
13. Ez du zakatzik, arraina ez da
eta. / 14.B / 15.B / 16.A / 17.B /
18.C / 19.A / 20.B



HITZ GEZIDUNAK

	*Izena	A	Egozki	E	Eortako	A	Tuterako	N
	Bidatzak galak hartua		1993an		Arriak irekien dutena		Nazio Batuak	
	Zerbait egileko eskabide	E		L		K		A
	IVA	B		A		I		M
		B		E	H ₂ O	U		R
				Z	Zuzenda- riaena			A
Kontak arumak	Uma	R	Klorik	B	A	K		A
Autos gi- datzeko	Guzere egin behor	H	Edo Etzanda					
		B		O		L		A
Karubana (frantsu- sezko hitza)		R		O		U		L
Dago				O		T		E
	Kontso- manika	R		Z		U		E
	Opilak							R
*Deltan		B		E		R		A
Bada				S		A		T
		B		E		R		A
				Z				
Hor balen biri		H		A		G		I
Asla				A		G		I
		B		E		T		A
				R		E		O
Musika nota		R		E		O		R
Utz				O		R		T
		L		A		G		A
				O		R		T
1,000 gramo		K		I		L		O
				H		A		N
				K		A		K

LETRA-ZOPA



SOLUZIOAK: Mozkor, baratxuri, mozolo, neskatxa,
errege, argiontzi, pospolo, malko, ganibet

ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

Barnerakoi ibiliko zara. Ez estutu ustegabeko sari bat jasoko duzu eta **ekialderantz** joango zara. Pasaporteari bere balioa **ahituko** zaio, ordea, eta, berria epe laburrean egitea lortu nahiez, **zurikeriatan** ibili beharko duzula gogoan izan. Zorte on!

TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

Haginetako mina duzula? Gripeak jo zaituela? Hanka hautsi duzula? Aukera bikaina ohizko eginkizunetara ez joateko. **Bapo asko** geratuko zara ohean.

GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

Hamaikak eta oraindik lo? Zu baino **nagiagorik**. **Birigarroen** txorrotxoak aspaldian hasiak dira. Gosaria bestek prestatzen duenean, goizago jaikitzen zara, bai! **Alferra halakoa!**

CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

Zoaz menturazko pelikula bat ikustera. Pelikula geldixeek lokartu egingo zaituzte. Etzazu inola ere beldurrezko pelikularik ikus, nerbioek goi-behe astinduko zaituzte eta. Eta **atxera** etxera, nola itzul?

LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

Lan mantsu eta iraunkorrari helduko diozu. **Berezko kemena garatzeko parada** duzu. Aukeran gehiegi bakartuko zara. Baina hara: erabakiak hartzeko gaitasuna eta autokontrola eskatzen duten ikasketetan aski iaioa zarela ohartuko zara.

VIRGO

Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra

Libra baten etxera zoaz ate joka. Ahoa bete-bete duelarik atea irekitzen badizu, bertan geratu afaltzen. Soinean pixama urdina baldin badu, oheratu nahi duen seinale. Eta atea irekitzen ez badizu, hogeiturokoa utzi atepean, zorionak luzaroan lagunduko dizu eta.

LIBRA

Irailaren 24etik Urriaren 23ra

Klasetik edo lanetik atera bezain pronto zoaz telebista aurrera, aspaldian **irrikaz** itxaroten duzuna botako dute eta.

SCORPIO

Urriaren 24etik Azaroaren 22ra

Ordurako ezin sekula ailegatu. Horretarako alfer-alferrik da aspirinak bata bestearen atzetik hartzea. Hegoaldekoen filosofia duzu irtenbide bakarra. Bizi haiek bezala. **Herriminak** nekeak ekarriko dizkizu. **Gutizia**, laranja-zumoak.

SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era

Komunera heltzeko larri ibiltzen zarela? Ez da harritzekoa. Orain berriro atera dituzten **kotoi** bereziak ipurtzuloan jartzea duzu onen-onena. Soldataren erdia horretan joango zaizu, baina ez zara damutuko. Gogoan eduki farmazietan bakarrik saltzen direla.

CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra
Izarrak kontatu al dituzu inoiz? Izarrak adina maitale izango duzu zoro-zoro atzetik; zuriak, beltzak, txinarrak, mongoliarak eta **inuiten** bat edo beste ere bai. Noren arrastoei jarraitu? Irribarre egitean hortzak agerian erakusten ez dituenari. **Otoi!** Zoaz **emeki-emeki** eta hanka-punttetan, haren itzala galdu aurretik.

AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

Arrautzak erruten ari zarela dirudi. Ezin al zara geldirik egon? Ezagutu ez duzuna erakargarri duzu: mugimendua, kirola, eta bereziki eskaladak. Umor-aldaketa haundiak.

PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

Kooperatiba bateko **partaide** hartu nahi zaituzte. Erabaki zaila zuretzat. **Ezbaian** ibiliko zara. Zalantzak. Kezkak. Zu egon lasai eta denborak erabakiko du. Gorputz haundikoa **izanagatik**, ahuleziak joko zaitu. Zaindu ondo osasuna.

BARNERAKOI.- Introvertido/a.
EKIALDERANTZ.- Sortalderantz.
Hacia el este.
AHITU.- Bukatu, agortu. Agotar.
ZURIKERIA.- Enbustekeria.
Adulación, lisonja.
ATXERA.- Berriz. Nuevamente.
IRRIKA.- Grina edo desio bizia.
INUIT.- Esquimal.
OTOI!- Mesedez! arren!
EMEKI-EMEKI.- Poliki-poliki. Muy

suavemente.
BAPO ASKO.- Ederki asko. Muy bien.
BEREZKO KEMEN.- Capacidad natural.
GARATU.- Desarrollar.
PARADA.- Aukera. Oportunidad.
HERRIMIN.- Nostalgia del pueblo.
GUTIZIA.- Capricho.
ARRAUTZAK ERRUN.- Poner huevos.

NAGI.- Alferra.
BIRIGARRO.- Txori-mota bat. Malviz.
ALFERRA HALAKOA!- Vago/a más que vago/a.
KOTOI.- Algodón.
PARTAIIDE.- Sozioa.
EZBAI.- Zalantza, duda.
IZANAGATIK.- Zaren arren. Aunque eres.
AHULEZIA.- Debilidad.



HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO